anboto

TOKIKOM

2011ko ekainaren 24a
10. urtea - 421 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri |4|
Iurretako Odi-Bakar enpresako beharginek mobilizazioak hasi dituzte

Berbaz |7|
M. Sandra: "Euskaldunok sormen handia izan duzue euskararen berreskurapenean"

Kirola |13|
Hilario Perez Tabirakoko lehendakari izan denagaz berbetan, kargua utzi berritan

34 behargin lan barik geratuko dira Envasa enpresa itxita

> Ez dute lortu lege konkurtsalean zegoen Mallabiko enpresa bideragarri egiterik

> Beharginek badakite uztailean ez bada oporrak eta gero itxiko dutela enpresa

3

Iban Gorriti

Bihurguneak ikuskizun, bihar, Urkiolako Igoeran

Abadiño• Durangalde Racing elkarteak Urkiolako Auto Igoera antolatu du zapaturako. Rally zaleek eskualdean izaten duten zitarik garrantzitsuena da Urkiolakoa, eta aurten ere bihurguneak jendez gainezka egotea itxaroten dute. Probak 15:00etan hasiko dira, baina errepidea 13:00etan itxiko dute. Turismoetan irabazteko faboritoen artean dago Iñigo Olabegogeaskoetxea atxondarra. 14

M15 mugimenduak asanblada deitu du gaurko Durangon

Durango• Mugimendua hirietatik herrietara zabaltzen dabiltza apurka-apurka, eta Andra Mariko elizpean asanblada deitu dute gaur, 20:00etan. Mugimenduaren aurkezpena egingo dute, eta ondoren herritarren proposamenak batu gura dituzte. 2

80ko hamarkadako Poliputos taldearen berragertzea, bihar

KULTURA • 1980ko hamarkada gaitzat hartuta urte hasieran Plateruenean antolatu zuten Zilar Astearen harira egin zieten 1989an desagertutako Poliputos taldekoei berriro elkartu eta kontzertua eskaintzeko gonbita Plateruenean. Urte hasieratik jardun dute ekainaren 25eko kontzertua prestatzen. 9

• **Durango**
50. urteurrena ospatzen hasiko da Tronperri dantza taldea 2

• **Elorrio**
Azoka Kulturala antolatu dute zapaturako Herriko Plazan 7

• **Abadiño**
Aniztasun sexualaren aldeko jaia egingo dute hilaren 28an 3

DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuela Oficial de Idiomas

MATRIKULA EPEA:
Ekainaren 30etik
Uztailaren 14ra

MATRIKULA OFIZIALA
2011-2012

Ikasle guztiak: ekainean gainditu dutenak zein gainditu ez dutenak, eta ikasle berriak
EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA, ALEMANA

MATRIKULA *ON-LINE* EGINGO DA:
Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako webgunearen bidez:
www.eoidurango.net

Zubiaurrea, 1 (DURANGO) ¥ Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

M15 mugimenduko asanblada, gaur, 20:00etan

Andra Mariko elizpean ipini dute zita, batzartu eta ekarpenak jasotzeko

Maiatzaren 15a, Suminduak, Benetako Demokrazia Orain... hainbat izenez ezagutu dugun mugimendua hiriburuetatik herrietara zabaltzen dabiltza apurka-apurka. Durangon gaur egingo dute lehen herri-asanblada Andra Mariko elizpean. 20:00etan ipini dute hitzordua.

Mugimenduaren aurkezpen txiki bat egin eta orain arte egin diren ekimenen berri emango dute batzarrean

Asanbladaren filosofiaren baitan jendeak bere ekarpenak era librean ematea egongo dela azaldu dute batzarraren deitzaileek. Gaur iluntzeko asanbladan, mugimenduaren aurkezpen txiki bat egingo dute.

Bilboko manifestuaren inguruan, mugimenduaren zergatien inguruan, eta asanbladen metodologiaren inguruan egingo dute berba. Beste herrietan lantzen dabiltzan ekimenak ere azalduko dituzte, hala nola, Madrilen hasi den "suminduen herri martxa" edo euroaren itunaren kontrako ekitaldiak.

Gaurko asanbladan norbanakoek euren iritziak ematea ere garrantzitsua izango da. Asanblada deitu dutenen berbetan, "bakoitzak dituen proposamenak" batu gura dituzte Andra Marian.

Suminduen Martxa

Atzo hainbat herritatik igaroko den Suminduen Martxa hasi zuten. Bilbotik irten eta Gasteizerako bidean, gure eskualdetik ere pasatuko da martxa hori ekainaren 28an eta 29an. 28an helduko da Gernikatik Durangora, eta 29an Otxandiora joango dira han beste geldialdi bat egiteko. ■ A.Ugalde.

Tronperri 50. urteurrena ospatzen hasiko da domekan

San Agustinen egingo dute ekitaldia, eta urte osoan jardungo dute ospatzen

Tronperriko dantzariak Artekalen kalejiran, duela hamarkada batzuk. Tronperri Dantza Taldea

Dantza taldeak 50 urte betetzen dituela-eta, domekan hasi eta datorren urtera arte hainbat ospakizun antolatuko ditu Tronperri dantza taldeak. Domekan 12:30ean egingo dute lehenengo ekitaldia, San Agustinen.

Dantza emanaldia izango da, zelan ez, domekakoa. Ordu bete inguruan, Tronperriko talde guztiek emanaldiak eskainiko dituzte, eta argazki zaharrak ikusteko aukera ere egongo da. Taldearen historia gogoratu eta sortu zenetik izan dituen hamahiru lehendakariei oroigarri bana emango diete domekako ekitaldian.

Gaur egun dantza taldeko lehendakari den Alberto Izagirrek azaldu duenez, datorren urteko ekainera bitartean ekitaldi ugari egingo dituzte urteurrena ospatzeko: "Durangoko eta inguruetako taldeak gonbidatuko ditugu ekitaldietara". Uztailaren 1ean, esaterako, Durangoko Orfeoiak kontzertua eskainiko du urteurrena dela-eta. Irailean, berriz, Tabira musika bandagaz Tronperrik berak dantzaldia eskainiko duela aurreratu digu Izagirrek.

12:30ean hasiko da domekako ekitaldia gaur egun Tronperrin dauden dantzari guztiekin

Duela 50 urte San Frantziskoko lokaletan hasi ziren lehen entseguak

Hasieran, zortzi mutiko

San Frantziskoko lokaletan dantzak irakasten hasi zen Don Eduardo abadea 1961ean. Zortzi mutiko hasi ziren lehenengo. Apurka-apurka neskak ere hasi ziren dantzan ikasten, eta handitzen joan zen taldea. Halako baten, dantzara joan eta taldearen izena zein zen galdetu zietenean, Durangoren ezizenetako bat etorri zitzaien burura: Tronperri. ■ A.U.

San Rokeko babeseko etxeak, lizitazioan

Uda ondoren hasiko dira San Roke auzoan saltzeko 144 etxebizitza sozialetako beharrak

Bi bloketan, babeseko 144 etxebizitza sozial eraikiko dituzte laster San Roken. Obren lizitazioa zabaldu berri du Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Visesa elkarte publikoak, eta lanak 2011ko hirugarren hiruhilekoan hastea aurreikusi dute.

Bi bloke simetrikotan egongo dira etxebizitzak, eta 2011ko hirugarren hiruhilekoan hasiko dira eraikuntza lanak

Salmenta erregimeneko etxebizitzak izango dira San Rokekoak. Bi bloke simetrikotan banatuta egongo dira. 144 etxebizitza horietatik 42k logela bi izango dituzte, eta beste 102ek, berriz, hiru logela.

Etxebizitzek trastelekua eta garajea izango dute, eta horiez gainera, salmenta librerako 80 garaje eta 20 trasteleku ere eraikiko dituzte San Roken.

Energia aurrezteko

San Rokeko etxeek energia aurrezteko hainbat neurri edukiko dituztela aurreratu du Visesak. Esaterako, blokeen barrualdean aireztatutako patio bat egongo da, eta horrela, etxebizitza guztiek gurutzatutako aireztapena izango dute, beheko solairuek izan ezik. Horiek etxebizitza aurrean lorategiak izango dituzte. ■ A.U.

Tabirako jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan

Gaur, txupinazoagaz, hasiko dituzte Sanpedroak

Gaur arratsaldeko 19:00etan botako dute Tabiran San Pedro jaien txupinazoa, eta iluntzean tortila jana edukiko dute Rex erromeriagaz. 22:00etan, berriz, The Dos taldeak kontzertua eskainiko du. Ekitaldiz betetako asteburuaren lehenengo eguna izango da.

Bihar goizean goiz hasiko da mugimendua Tabiran: umeentzako jokoak, marmitako prestaketa, musa, partxis eta igel txapelketa, kontzertuak... gauera bitarteko giroa edukiko dute.

Domekan 12:00etan artzai txakur erakusketa egongo da, eta arratsaldean Trial Bike eta sabeldantza emanaldiak egingo dituzte. Eguaztenean amaituko dira Tabirako jaiak. ■ A.U.

DURANGALDEA

Hilda aurkitu dute Jose Luis Zubillaga

Eguaztenean EB-Berdeen Durangoko egoitzan aurkitu zuten Jose Luis Zubillagaren gorpua

Eguaztenean aurkitu zuten EB-Berdeek Durangon daukaten egoitzan, hilda, 2009tik EB-Berdeen Bizkaiko koordinatzailea eta azken bi legealdietan Iurretan zinegotzia izan den Jose Luis Zubillaga.

Bizkaiko EB-Berdeen zuzendaritzako kidea ere bazen, bertoko Batzorde Politikoko kidea ez eze. Euskal Autonomia Erkidegoko CCOO sindikatuko kidea ere izan zen urte askoan; Metaleko Federazioko Batzordeko kidea zen sindikatu horretan. Jose Luis Zubillagak 52 urte zituen, ezkondua zen eta metalurgiaren arloan egiten zuen lan. Urte askoan mantendutako "konpromiso politiko eta sindikala" gogoratu dute EB-Berdeetako eta CCOO sindikatuko kide izandakoek, eta beti edozertan laguntzeko zuen "prestutatsuna" azpimarratu dute. ■ J.D.

Iurretako zinegotzia eta alderdiaren Bizkaiko zuzendaritzako kidea izan zen, besteak beste, Zubillaga

MALLABIA

Envasa enpresa itxi eta 34 langile kalean geratuko dira

2008tik lege konkurtsalean egon da; langileek "gestio txarra" salatu dute

Mallabiko Goitondo industriagunean dago kokatuta Envasa enpresa.

Mallabiko Envasa enpresak ateak itxiko ditu, 35 urteko jardueraren ondoren. Besteak beste, poltsak eta plastikozko estalkiak ekoitzi izan dituen enpresa lege konkurtsalean sartuta egon da 2008az geroztik.

Egoerari ez diote bideragarritasunik aurkitu, eta zuzendaritzak zein administratzaileek enpresaren likidazio eskaera egin behar izan dute; merkataritza epaileak eman du dagoeneko baimena. 34 langile geratuko dira beharrik barik: 24 produkzioan eta 10 administrazioan. Oraindik, heltzen diren heinean, lan txiki batzuk egiten dihardute, baina langileek badakite "egoerak ez duela atzerabueltarik, eta datorren hilean ez bada oporren ostean itxiko da".

"Enpresa suspertzeko baino gogo handiagoa ikusi diegu ixteko", diote langileek

Enpresan enplegua erregulatzeko espediente bi izan zituzten 2006tik 2008ra. Ondoren, lege konkurtsalean sartu zen. Administratzaileen bideragarritasun planak ez zuen enpresa suspertu.

Langileen ordezkarien esanetan, "produkzio eskaerak izan dira, baina materiala erosteko ez zegoela dirurik eta antzeko aitzakiak ipini izan dituzte; gogo handiagoa ikusi diegu enpresa ixteko, irtenbideak bilatzeko baino". Kalte-ordainak Fogasan —Lan Ministerioko organoa— zehaztutakoaren arabera jasoko dituzte; gutxi gorabehera, urtebeteko soldata gordina. ■ J.Derteano.

ATXONDO

Asteburua jai-giroan emango dute Axpen

Suaren bueltan ibiliz hasi zituzten bart Sanjoanak

Gaur mezagaz eta igel eta briska txapelketagaz hasi dute San Joan eguna Axpen. 19:30ean herriko beteranoen pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte, eta eguna amaitzeko Jo Ta Su taldeak erromeria eskainiko du.

Biharko eguna janariaren bueltan emango dute Axpen. Bakailao eta tortilla txapelketak dauzkate arratsaldean, eta iluntzean afaritara batuko dira frontoian. Urtero legez, jai batzordeak ogia, kafea eta postrea jarriko ditu. Afalostean dantza eta bertso ikuskizuna egongo da, eta gero Luhartzen erromeria.

Domekan, 11:30ean, meza egongo da, eta ondoren Andasto dantza taldearen emanaldia. Arratsaldean pailazoak eta txokolatada izango dituzte. ■ A.U.

Andasto dantza taldearen iazko emanaldia Axpeko jaietan

Udalak orain arteko lan batzordeei ekingo die

Osoko bilkurak hileko 3. astelehenetan izango dira

Duela lau urte sortu ziren lehenengoz herrira zabalik egon diren lan batzordeak Atxondon. Udalbatza berriak bost batzorde horiekin jarraitzea erabaki du. Zinegotziek zer batzordetan parte hartuko duten zehaztu dute. Osoko bilkurak hileko hirugarren astelehenetan, 19:00etan, egingo dituztela ere erabaki dute.

Hauek dira laster beharrean hasiko diren batzordeak: Ogasuna, diru kontuak eta langileak; Hirigintza eta herri-lanak; Gazteria, kultura, hezkuntza, kirola eta aisialdia; Ongizatea, sozioekonomia eta berdintasuna; eta Ingurumen batzordea.

Alkateorde zereginetarako Uxuri Gallastegi eta Juanjo Nora onartu dituzte udalbatzan.

Auzoen beharrak

Rosa Elizburu alkateak alkatetza jarduna bere irakasle lanbideagaz uztartuko du. Parekidetasun arloan eta gazteriari begira lan egiteko premia nabarmendu du. "Auzoetako premiak udalari helarazteko", auzo kontseiluen antzeko organoak beharko liratekeela ere uste du alkate berriak. ■ A.U.

Zuzenketa: Joan zen barikuko Anboton Apatako igerilekuak astelehenetik barikura zabalduko zituztela idatzi genuen, baina asteburuetan ere zabalik daude, aurreko urteetan legez.

ABADIÑO

Aniztasun sexualaren gaineko sentsibilizazioa

Abadiñoko Batukada taldearen emanaldia, film emanaldia eta zine foruma antolatu dituzte

Emakumezkoek osaturiko perkusio taldearen lehenengo emanaldia jasotzen du, besteak beste, Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Askapenerako Nazioarteko Egunagaz bat eginda Abadiñon antolatu duten egitarauak. Ekainaren 28an eskainiko dute Batukada taldekoek emanaldia.

Maiatzetik ekainera arteko perkusio tailerreko 11 kidek egingo dute batukada, 28an

Maiatzetik ekainera arte, udalak eskaini duen perkusio tailerrean parte hartu duten hamaika emakume dira Abadiñoko Batukada taldea osatu dutenak, eta ekainaren 28an, Txanporta plazan emanaldia eskainiko dutenak.

Udaleko Berdintasun Sailak, Anboto Azpiko Damak eta Denon Artean elkarteek, Zelaietako eta Matienako Erretiratuen Elkarteagaz batera antolatutako egitarauak Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Askapenerako Nazioarteko Egunean emateko hautatutako bi filmen emanaldiak ere jasotzen ditu. Batetik, emakume heldu biren arteko maitasun istorioa kontatzen duen *80 egunean* izango da ikusgai, ekainaren 28an, 18:00etan, Txanportan. Ondoren hasiko da batukada. Ekainaren 30ean, 18:00etan, Jane Andersonen *Normal* filmaren inguruko Errota kultur etxeko zine forumagaz amaituko dute egitaraua.

'80 egunean' eta 'Normal' filmak eman eta forumak egingo dituzte 28 eta 30ean

"Aisialdirako, sentsibilizaziorako eta aniztasun sexualaren gaineko hausnarketarako aukera" bezala aurkeztu dute antolatzaileek aipaturiko egitaraua. ■ I.E.

ZALDIBAR

Eskolako jaia ospatuko dute bihar, gurasoen eskutik

Zaldibarko eskolako jaia antolatu dute biharko, goizetik gauerako egitarau zabalagaz. Ikasturtea amaitu dela-eta, ikasle eta gurasoak jai giroan elkartzeko aprobetxatuko dute.

Goizeko 10:00etan txupinazoa botata hasiko dute jaia, eta buruhandi zein trikitilariek lehenengo momentuak animatuko dituzte. Hortik aurrera, eskulanak, gaztelu puzgarriak, tirolina eta antzeko ekintzak izango dituzte. 15:30ean mus txapelketa jokatuko dute, eta arratsalderako jolasak, dantza tailerrak eta karaokea atonduko dituzte.

21:00etan herri-afarian batuko dira, eta dantzaldiak emango dio amaiera jaiari

21:00etan herri-afarian batuko dira –20:00etan hasiko dira prestatzen–, eta ondorengo dantzaldiak emango dio amaiera eskolako aurtengo jaiari. ■ M.O.

IURRETA

Mobilizazioak hasi dituzte beharginek Odi-Bakarren

Kontratu desegite espedienteagaz 15 langile kaleratu gura dituzte

Kontratu desegite espedientearen bitartez 15 langile kaleratu gura dituztela-eta, mobilizazioei ekin diete beharginek Odi-Bakar enpresan. Enplegu-erregulazio espedientea atzera botatzea gura du Enpresa Komiteak (ELA 2, LAB 2 eta independiente bat) eta "adostutako kaleratze ez traumatikoak bideratzea", ELA eta LABek diotenez. Odi-Bakarren 70 langile inguruk dihardute, eta aurretik enplegu-erregulazio espediente bi izan dituzte; bietan enplegu etenaldia izan dute.

Krisiaren eraginez, "egoera gainditzea" ez dela lortu esan die enpresak, ELAk adierazi duenez. Hala ere, 15 langile kaleratzeari "onartezina" deritzotela argitu du LABek. Horretarako arrazoirik ez dagoela diote: "Enpresari hainbat aukera jarri dizkiogu mahai gainean, eta ezezkoa izan da euren erantzuna". Kontzentrazioak eta mugarik bako greba hastea ere adostu dute, akordiorik ezean.

Odi-Bakarren enplegu erregulazio espediente bi izan dira; 70 bat langile dira

Kaleratze guztiak adostuak izateko negoziazio prozesua hasi gura du Enpresa Komiteak; langile batzuk prest daude horretarako. "Enplegu erregulazio espediente berri bat zabaldu eta egoeraren bilakaera zelakoa den ikusita negoziazio prozesu hori ere zabaldu daiteke", dio ELAk. Atzo iluntzean izan zuten egoera desblokeatzeko azkeneko batzarra (jarraipena anboto.org-en). ■ A.Basauri

Odi-Bakarreko enpresa komitean LAB eta ELAko ordezkari bina eta independiente bat dira. A. Basauri

BERRIZ

Eskolako patio berria herrira zabalduko dute

Eskola orduetan ikastetxeak erabiliko du; ordu horietatik kanpo zabalik egongo da edonorentzat

Udal ordezkariek patioa bisitatu zuten lanak amaitu berritan.

Learreta Markina Ikastetxean jolasgune berria eraikitzeko lanak amaitu dituzte oraintsu, udal arduradunek jakinarazi dutenez. Eskola egunak agortuta, egunotan herritarrentzat zabalduko dute gune hau. Era horretan, hemendik aurrera, eskola orduetan ikastetxeak erabiliko ditu aterpea eta jolasgunea. Eskola orduetatik kanpora, ostera, herritarren aisialdirako elkargune ere izango da.

2010eko urtarrilean onartu zuen egitasmoa udalbatzak, eta iazko maiatzean ekin zieten lanei. 520.000 euro inguruko aurrekontua izan du fase bitan garatu den proiektuak.

Eskolako sarreran hasten da patioa, eta alboko parkearen 8.000 metro karratu hartzen ditu, gutxi gorabehera.

520.000 euro inguruko aurrekontua izan du fase bitan garatu den proiektuak

Lanen emaitza

450 metro karratu inguruko estalgunea eta gaztetxoentzako zabu eta jolasak egokitu dituzte bertan. Zabalgune garrantzitsua dauka, atsedenerako edo ibiltzeko aukera emanez. ■ M.O.

OTXANDIO

Igerileku-txartela egiteko aukera

Banakakoak edo familiarrak izan daitezke txartel hauek; adina eta errolda kontuan izango dituzte

Otxandioko igerilekuetara sartu ahal izateko txartel edo bonu bereziak sortu dituzte, aurtengo udarako baliogarriak izanik. Ordainketa txartelok eskatzerakoan bertan egin beharko da, eta argazkia eroatea derrigorra da, jakin eragin dutenez.

Hiru kide abonatuta dituzten familiek % 20ko deskontua edukiko dute bonoetan

16 urtetik gorako erabiltzaileen artean, erroldatuek 28,70 euro ordainduko dute, eta erroldatu bakoek 46 euro. 5-15 adin tarteko gaztetxoen kasuan, erroldatuek 15,50 eurotan dute txartela, eta erroldatu bakoek 31 eurotan.

Honez gainera, hiru familiakide abonatuta dituztenek % 20ko deskontua edukiko dute. Kide bat gehiagogaz % 25era igoko da deskontua, eta bosgarrenagaz % 30era. Sei izanez gero, % 40koa izango da beherapena. Gurasoak eta 25 urtez azpiko seme-alabak sartzen dira eskaintza horretan; izatezko bikoteak ere kontuan hartuko dituzte.

Guraso elkarteko txangoa

Bestalde, Mainondo guraso elkarteak txangoa eratu du uztailaren 2rako. Agorregiko burdinola eta errota bisitatuko dituzte goizean, eta arratsaldean Oriora hurreratuko dira. ■ M.O.

IZURTZA

Seme-alaben gastuetarako eta alokairurako diru-laguntzak

Uda ostean zabalduko dute alokairuan bizi direnei zuzenduriko udalaren diru-laguntza jasotzeko eskariak egiteko epea: urriaren 11tik azaroaren 12ra arte aurkeztu ahalko dituzte herritarrek eskariak Udaletxean. Aurtengo udal aurrekontuan 10.000 euroko diru-atala gorde zuten alokairuan bizi direnen artean banatzeko, eta lehenengoz jaso dute aurrekontuan jaio-berrien familientzako diru-laguntzarako 2.400 euroko atala ere. Izurtzarrak herrian bizitzen geratzera bultzatzea helburu duten diru-laguntzak dira biak.

Jaioberriengatiko diru-laguntzarako eskaria egiteko, gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da Udaletxean; gehienez, 600 euro jaso ditzakete. ■ I.E.

Prest daude uztaileko kirol ikastaroak

Deneriko eskaintza eratu dute berriro; ekainaren 26a da ikastaroetan izena emateko azken eguna

Berrizburu kiroldegiko ikastaroek beste atal bat edukiko dute uztailean, eta astelehen honetan amaituko da bertan izena emateko epea, arduradunek azaldu dutenaren arabera. Martitzenean zozketa egingo dute, eta eguaztenean jakin eragingo dute antolatzaileek erabakia. Ikastaroak uztailaren 5ean hasiko dira.

Igerilekuan adinen araberako sailkapena egin dute, eta, horrez gainera, uretako gimnasia lantzeko aukera ere eskainiko dute, martitzen eta eguenetan. Barikuetan, aste biko ikastaro trinkoa burutuko dute. Goizean hasi eta iluntzera arte, ikastaroz beteko da igerilekua uztailean.

Cyclingaren kasuan, aste biko ikastaro trinkoa izango da aukeran; goizez saio bat eta iluntzetan bi egingo dira.

Gimnasioan batuka gaztea, pilates, mantenu gimnasia, aerobic eta step ikastaroak egongo dira, besteak beste

Igerilekuan, barikuetan aste biko ikastaro trinkoa burutuko dute

Gimnasioan

Amaitzeko, aipatzekoa da deneriko arloetan sakonduko dela gimnasioan. Batuka gaztea, pilatesa, gimnasia lasaia, mantenu gimnasia, integral fit-a, step-a eta aerobic-a sartzen dira eskaintzan. Arlo bakoitzean bina saio antolatuko dituzte astean zehar. Astelehenetik eguenera arte egongo da zabalik gimnasioa. ■ M.O.

RENAULT SCÉNIC DYNAMIQUE

1.5 dCi 105zp. 2010. Urtea.

16.900€

RENAULT OCASIÓN

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP Transferentziako gastuak barne 2011/07/31ra arte edo izakinak amaierarte baliozko eskaintza.
Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.

RENAULT

GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursaautoak.com

Durangaldean labur

Ibai Esteibarlanda elorriarra aske geratuko da gaur

Segiren kontrako operazioan 2009ko azaroan atxilotu zuten gazte elorriarra, eta fidantzapean irtengo du gaur Madrilgo Navalcarnero espetxetik. 50.000 euroko fidantza ordaindu eta gero etorriko da Esteibarlanda Elorriora. Duela urte eta erdiko sarekadan 36 gazte atxilotu zituzten Espainiako Poliziak neta Guardia Zibilak; tartean Eñaut Aiartzaguena iurretarra ere bai. Oraindik ez dute epaiketarik izan.

Maria Orbegozok irabazi du Maristetako lehiaketa

Maristak ikastetxeak sormena, konfiantza eta hiru hizkuntza (euskara, gaztelera eta ingelesa) sustatzeko antolatutako *Maristak Komkrealusitivity* lehiaketa Maria Orbegozok irabazi du, Elorrioko Lourdesko Ama ikastetxeko ikasleak. Guztira hamar ikasle izan dira finalean; tartean, Durangoko San Antonio Santa Rita eta Sagrado Corazon ikastetxeko ikasleak.

Diru-laguntzen gaineko ikastaroa

Merkatarien +Dendak elkarteak diru-laguntzen inguruko ikastaroa eskaini zuen atzo. Autonomoen finantzalaguntza, langileen kontratazioa eta euskararen erabilera lako gaiak landu zituzten. Gaian interesa edukiz gero *comercio@masdendak.com* helbidera idatzi daiteke.

ELORRIO

Azoka Kulturala egingo dute bihar, Musikaireren atarian

Plazan izango da azoka, 09:00etan hasita. Hamaikagarren edizioa da aurtengoa

Auto zahar erakusketa, deskatalogatutako liburuak, bildumak, filatelia... XI. Azoka Kulturala antolatu dute biharko Elorrion. Goizean goizetik hasi eta 14:30 arte plaza ingurua, udaletxeko arkupea eta elizpea azoka bihurtuko dituzte.

Musikaire jaialdiko egitaraua hasi ohi duen azoka da biharkoa, eta azokaren antolatzaile Agustin Urizarrek azaldu duenez, urterik urte, geroago eta parte-hartze handiagoa egoten da. Aurten, postuen artean, margolaritza ikastaroan jarduten duten elorriarren lanak ere egongo dira ikusi eta erosteko moduan.

Auto zaharrak, katalogoetatik kanpora dauden liburuak eta bildumak egongo dira azokan

Herrian margolaritza ikasten dabiltzanen lanak ere ipiniko dituzte, ikusteko zein erosteko

Herriko plazan aparkatuta 30-40 auto zahar egongo dira goizean, Urizarrek jakin eragin duenez. Azokako beste generoa erakusten, berriz, 20 postu inguru ipiniko dituzte. ■ A.Ugalde.

Jaietako lehiaketako kartelak erakusketan

17 kartel aurkeztu dituzte; inoiz baino gehiago

Ferixa Nausikoetarako kartel lehiaketara aurkeztu dituzten lanak Iturri kultur etxean daude erakusketan. Lehiaketa egiten denetik, aurten jaso dute kartelik gehien: 17; orain, ekainaren30era arte gustukoen duten kartelaren alde bozkatu ahalko dute herritarrek.

Ekainaren 30era arte dago kartel gustukoenaren alde botoa emateko aukera

Kartelotan jaiekin lotutako elementu ugari sartu dituzte: Txantxibiri kantako astoa, Argiñeta, danborrada, buzkantza, erraldoiak... Boto ugari ikusi ahal izan dira asteon kartelen ondoan ipini duten kutxa gardenean. Herritarrek botoa eman eta gero, epaimahai teknikoak edukiko du azkeneko hitza, eta herritarren iritzia kontutan hartuko dute. ■ A.U.

Azokaren bidez, mendeetan atzera egin dute San Agustin auzoan

Antzinako Ogibideen V. Azoka arrakastaz burutu zuten joan zen zapatuan

Herriko jende ugari ipini zen antzinako artisauen lekuan.

Errementariak, zaldunen armadurak, jostunak, tabernariak... antzina zelako ogibideak zituzten irudikatzeko ahalegina egin zuten joan zen asteburuan Elorrion.

San Agustin auzoko Olazar auzo elkarteak bi urterik behin antolatzen du Antzinako Ogibideen Azoka, eta joan zen zapatukoa bosgarrena izan zen.

Merkatu xumean jende ugari batu zen egun osoan zehar. Artisauen beharrak ikusi eta Erdi Aroan kokatutako antzezpenak eskaini

Bi urterik behin antolatzen du azoka San Agustin auzoko Olazar elkarteak

ziren San Agustinen. Goizetik iluntzera arte egon zen azoka zabalik.

Astean zehar Nafarroaren konkista eta Erdi Aroko ohituren gaineko berbaldiak izan zituzten giroan sartzeko. Barikuan San Agustingo elizan Berriotxoa abesbatzak kontzertu berezia eskaini zuen, Erdi Aroko doinuetara oruko arropekin gerturatuta. ■ A.U.

MAÑARIA

Herritik kanpora ikasten dutenendako diru-laguntza

Guztira, 1.500 euroko atala bideratu du udalak

Dagoeneko aurkeztu daitezke ikasketak burutzeko herritik kanpora joaten direnentzat udalak eskaintzen duen diru-laguntza jasotzeko eskariak. Guztira, 1.500 eurokoa da herritik kanpora ikasten dutenei laguntzera udalak bideratuko duen diru-atala.

Besteak beste, "eskaera egin baino sei hilabete lehenago udalerrian erroldatuta egotea eta bertan bizitzea", unibertsitatean edo lanbide-heziketan matrikulatuta egotea, eta "16 eta 25 urte artean edukitzea" dira eskaria egin ahal izateko baldintzak. ■ I.E.

GARAI

Sanjoan jaiekin segituko dute asteburu osoan

Bihar iluntzean herri-afarian elkartuko dira

Atzo altxatu zuten txopoa Momoitioko San Joanen, eta asteburuan zehar jarraituko dute jaietako ekitaldiekin. Gaur eguerdian meza ere izan da, ermitan bertan.

Bihar arratsaldez eta gauez ospatuko dute jaia. Umeentzako ipuin-kontalaria ekarriko dute arratsalde parterako, eta iluntzean hasita herri-afarian elkartuko dira. Domekarako, amaitzeko, meza, dantzariak eta igel txapelketa eratu dituzte; eguerdian burutuko dira guztiak. Arratsaldean umeentzako jolasak ere prestatuko dituzte. ■ M.O.

BERBAZ >

"Gure hizkuntzak espainolaren parekoak izan daitezkeela ikusi dugu hemen"

Martha eta Arturo hizkuntza gutxituen berreskurapenerako maisutza ikasten dabiltza Eskoriatzan, Garabidegaz

Euskaraz hartu-emana berbaren jatorria nahiko esanguratsua da; hartu eta eman egiten da erlazioetan. Hizkuntza gutxituak dauzkagun komunitateen hartu-emanari buruz berba egin dugu Martha Sandra Bustillos eta Arturo Muyulemagaz. Martha aimara da; Arturo, kitxua. Hizkuntza galduz gero, mundu-ikuskera ere galduko luketeela badakite, eta euren mundu-ikuskeraren zati garrantzitsua da hartu-emana. Bi berba horiekin.



Martha Sandra Bustillos eta Arturo Muyulema •

- Martha aimara da eta Arturo kitxua
- Mondragon unibertsitatearen eta Garabide elkartearen ekimenez Hego Amerikako herri indigenetako 18 lagun etorri dira Euskal Herrira
- Berbaro, Plateruena eta Anboto bisitatu zituzten joan zen astean

Bakoitzak bere historia izango du, baina antzekotasunak ere izango dira herri indigenen artean.

Martha Sandra Bustillos: Antzeko ingurunean gaude; transnazionalen kontra borrokan, 500 urteko esplotazioa jasan dugu eta denboren aldaketa bat itxaroten dugu; *pachacuty* bat. Momenturen batean indigenak agerira atera beharko dugu; ez gara ikusezinak izan behar.

Euskararen kasua ezagutzen zabiltzate hileotan. Zer nabarmenduko zenukete euskal komunitateaz?

MS.B.: Zuek argi daukazuen zerbait zera da; hizkuntza barik zuen nortasuna galdu egingo dela. Espainia eta Frantziaren erdian duzuen setioagatik agian, euren mailan egon gura duzue. Nik duela gutxira arte sekula ez dut pentsatu nire hizkuntza desagertzeko arriskuan egon zitekeenik. Inoiz ez dut pentsatu "ez daukat telebistarik aimaran, ezta egunkaririk ere", hemen duzuen moduan. Ez zait inoiz bururatu unibertsitate bat behar genuenik aimara hutsean. Hona etorri eta euskarazko unibertsitatea ikustea, euskara bultzatzeko egiten den ahalegin guztia ikustea, txalogarria da. Aitzindari izan zaretela uste dut. Bertsolaritza, ikastolak... sormen handia izan duzue.

Zelakoa da zuen komunitateetan hizkuntzaren egoera?

MS.B.: Nekazal eremuetan gurasoek umeek gaztelera ondo ikastea gura dute, unibertsitatera joaterakoan arazorik ez edukiteko. Inoiz ez dut alderantziz pentsatu. Hemen ikasi dut nire hizkuntza espainolaren parekoa izan daitekeela. Autoestimua oso garrantzitsua da. Orokorrean herriok ez dugu hezkuntza politikak definitzeko aukerarik eduki. Kanpotik etorritakora egokitu behar izan dugu; ez dugu pentsatu zer ikasi gura dugun eta zelan. La Pazen guraso batzuek ez dute gura izaten euren umeei aimara irakastea; gaztelera ondo irakastea gura dute. Aimara baino gurago dute ingelesa ikasi dezaten, edo japoniera, bekak daudelako Japoniara, Kubara, AEBetara joateko. Beka horiei begira daude gazteak. Migratze hori batzuetan tristea da, komunitate asko hutsik geratzen direlako. Kanpotik bueltan hirietara joatea erabakitzen dute gazteek .

"Gurasoek eskoletan gaztelera ondo irakastea gura dute, ez aimara"

"Gobernuen eta indigenen artean borrokak daude mundu-ikuskerak ez direlako berdinak. Garapenaren mundu-ikuskeran naturaren kontra jotzen dute"

Hizkuntzaz gainera, mundu-ikuskera transmititu gura duzue.

Arturo Muyulema: Quiton Irakasleak kitxuan trebatzeko hainbat proiektu daude, eskola txikiak eta *Tingunakuy* –askoren arteko elkargunea– elkartea da horietako bat; ni hortik nator. Berdinen arteko topagunea da; emateko eta hartzeko lekua. Mundu-ikuskeran sakontzen dugu; gure mundu-ikuskeran, familia ez da pertsonekin bakarrik osatzen; naturagaz ere osotzen da: landareekin, animaliekin, haizeagaz... Munduan dena dago erlazionatuta eta ez dago ezer soberan. Ama lurraren, *Pachamama*ren zati bat gara gu. Edozein gobernuren eta mugimendu indigenen artean konfrontazioa egoten da, gobernuek ez dutelako gure ikuspegi bera; garapenaren ikuspegia dute, eta garapenean aurrera egiteko multinazionalekin natura ustiatzen dute. Ekuadorreko lehenengo borroketako bat lurra izan zen, gero nortasuna eta hizkuntza, eta hurrengoa hezkuntza eleanitza.

Gaur egun, zer lantzeak dauka premia handiena zuen herrietan?

A.M.: Ahozkotasuna dokumentatzen hasteko asmoagaz gabiltza; hori ezinbestekoa da. Hiztegiak digitalizatzea, terminologiak sortzea eta neologismoak lantzea gurako nuke. UZEIk lexikografiagaz egiten duen lana gertuagotik ezagutu gurako nuke. Gure hizkuntzaren azterketan adituak formatu behar direla uste dut, hezkuntza arloan eta arlo zientifikoan lan egiteko.

MS.B.: Gure kasuan, gure hizkuntzaren kontzientzia hartzea falta zaigula uste dut. Gure *ajayu*a eraman digute, gure izatea eraikitzen duen atala. Gure orientazioa ere aldatu digute. Gure iparra topatzeko esaten digute, baina guk ez dugu ipar izarra ikusten, gure norabidea hegoaldera begira egon da. Gure zerura begiratu behar dugu. Gabonetan, gurean negua ez denean, Papa Noel daukagu, Gabonetako arbola eta guzti. Gure umeei erreferente sinboliko horiek ematen gabiltza. Gure lekua hartu behar dugu eta autoestimuan lan egin behar dugu. Umeekin lehen hezkuntza aimaran ematea polita litzateke, eta gurasoekin lan egitea kontzientzia hartzeko. ■ A.Ugalde

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Abadiño hauteskundeen ondoren

Abadiñon zein edozein herritan udalek abiatzen dituzten proiektuen benetako zergaitiak misterioa izaten dira herritarrentzat. Batzordeetan gorpuzten diren inbertsio eta lan-ildoen berri jakitea ez da erraza, baina herrian zer aldatu den eta zer ez jakiteko herritik zein auzoetatik osteratxo bat egitea nahikoa da. Begitik jaten dugu politika, ikusten ez den kudeaketa onak ez du botorik ematen eta hori ondo dakite politikariek.

Traña-Matienan hainbat obra gauzatu dira azken lau urteetan, begibistakoa denez; Juan Antonio Untzueta kalea eraberritzea, Eroski ondo parkea, lorontziak auzoko kale nagusian… Obrak horietako batzuk ingurua dotoretu egin dute eta zonaldea biziberritu, Juan Antonio Untzueta kalea kasu, baina beste hainbat obraren eraginkortasuna ikusteke dago; Eroski ondoko parkea inauguratu zutenean dozenaka ume bainatu ziren laku txikian eta handik aste batzuetara hori debekatuta zegoela gogoratu zuten Udaletik. Zertarako orduan azpiegitura hori? Edo, gutxienez, zergatik modu horretara? Adibide gehiago ere badaude, baina nire asmoa ez da zerrenda bat osatzea, herritarrei zera gogoraraztea baino: udal batek kudeatu beharro esparru asko dituela (etxebizitza, euskara, kultur jarduerak…) eta horien guztien arteko gestio orekatua dela Gobernu Talde batek legegintzaldi hasieran markatu beharko lukeen jomuga. Arlo horretan ez dut uste hain fin ibili direnik Abadiñoko Independienteak azken lau urteetan.

Dena dela, datozen lau urteetan ere nire herriko alkatea Jose Luis Navarro izango denez, zorte ona desiatzeaz gainera, auzoetako errealitateaz ez ahazteko eskatu gura diot eta Abadiñoko webguneko informazio guztia euskaraz ere irakurgai ipini dezala; atal batzuetako informazioa gazteleraz bakarrik irakurri beharrak begietako mina ematen dit.

Gabriel Balentziaga (Abadiño)

PNVk saldu gaitu (berriro ere)

Agian, oraindik, ez gara konturatu baina Negoziazio Kolektiboaren erreformak guztiz aldatuko digu bizitza eta, noski, txarrerako izango da.

Horregatik, bi gauza oso argi utzi nahi ditugu hasiera-hasieratik; batetik, espainiar gobernuak, berriro ere, euskal langileriaren etorkizuna erabaki eta suntsitu duela eta, bestetik, munduko aberatsek sortutako krisia langile guztiok pairatu behar dugula, beraiek etekinak izaten jarraitzen duten bitartean.

Eta guzti honetan, zer paper du PNV/EAJ alderdiak? Lehenengo eta behin, aipagarria da Lan Erreformaren onarpenerako ezinbesteko pieza izan zirela. Orain, jeltzaleei esker, kaleratzeak inoiz baino errazagoak dira enpresa-buruentzako, 58 urte dituen gizon edo emakume bat eta enpresa berean 30 urtez lanean egonagatik ere, 20 eguneko ordain-sariarekin kalera joan daiteke. Eskerrik asko, Urkullu, Erkoreka, Ortuzar eta konpainiari, baina euskal langileriak ez du horrelako oparirik gura.

Itxura denez, ez zaie nahikoa iruditu. Langileak zapaltzea ez omen nahikoa eta orain txikitu egin gura gaituzte. Negoziazio Kolektiboaren erreforman abstenituz, berriro ere espainol dirudunekin eta patronalarekin posizionatu dira. Euskal langileok ez diegula batere axola argi utzi digute. Herrialde mailako hitzarmenak desagertzeko bidean jarri dituzte; estatu mailako hitzarmenak eta autonomikoak indartuz. Beraz, zer nahi dute, ELA eta LABek metaleko Espainiako Hiztarmena Madrilen negoziatzea? Hori txiste bat da, saldu egin gaituzte, langile guztiok saldu gaituzte. Eskubideak deuseztu eta langileok txiki-txiki egiteko neurria baino ez da eta, hori guztia, espainiar lege eta izaeraren menpe. Non dago beraien independentzi egarria? Madrili boterea emanez, Euskal Herria saldu besterik ez dute egin.

Enpresa eremuko hitzarmenak ere indarturik aterako dira erreforma honetatik, oinarrizko soldataren eta osagarrien zenbatekoak negoziatzeko ez da sektore mailako gutxienekorik egongo eta enpresetan soldatak behera negoziatu ahal izango dira. Aparteko orduen ordainketa, txandakako lana, lan ordutegia eta lanaldiaren banaketa ere enpresetan lortutako akordioen menpe egongo da. Urteko lanaldiaren oinarrizko elementua, ordez, estatu mailako hitzarmenak arautuko du. Gure ustez, enpresa eremuak ez du sektore mailako negoziaketaren alternatiba izan behar. Orain arte, sektore mailako eremuan, gure kausan, langile guztientzako oinarrizko eskubideak ezartzen ziren. Baina erregulazio berriarekin negoziazio kolektiboaren egituraketa hau desagertu egiten da, milaka langile babesik gabe utziz.

Patronalari %5eko malgutasuna oparitu diote, urtean zehar nahi duen moduan lanaldia banatu dezan, arrazoitu gabe eta langileen ordezkariekin negoziatu beharrik gabe. Eta, gainera, soldata igoerak ez aplikatzeko klausulak gogortu egin dituzte.

Laburbilduz, PSOEren Gobernuak PNVren ezinbesteko laguntzarekin, laburbilduz zera egin dute: urrea banatu banketxe eta patronalaren artean eta kaka-piloa utzi langileontzako.

Ziur dakigu, ordea, iraultza egingo dugula, langileok elkarturik eta etsaia nor dugun argi izanik, irabazi egingo dugula, langileok gure eskubideen jabe izateko erabakitzeko euskal esparrua sortuko dugu. Euskal Herrian lan, bizi eta erabaki!

Durangaldeko LAB sindikatua

Anbotok Jose Luis Zubillagari

Aste honetan hil da Jose Luis Zubillaga, EB-Berdeetako kide moduan Anbotoko kolaboratzaile izan dena 2009ko urriaz geroztik, *Sei hankako mahaia* politika zutabean; joan zen asteko alean argitaratu genuen bere azken zutabea. Lerrookin eskerrak eman gura dizkiogu "Zubi"-ri, beti azaldu digun prestutasunagatik, eta doluminak adierazi gura dizkiegu bere senitartekoei eta kideei.

Anboto Komunikabideak

Sei hankako mahaia

Juan José **Gastañazatorre**
PP

Tabirako igerilekuak

Ezin ditugu ulertu udal arduradunak Tabirako udal igerilekuak zabalik edukitzeko epea laburtzera eraman dituzten arrazoiak.

Oraingoz, ez zaigu oraindik erabaki horren berri jakinarazi, prentsaren bitartez jakin dugu, eta, bestalde, udan bakarrik erabiltzen diren instalakuntza batzuk zabalik edukitzeko epea laburtzea ez dela onargarria uste dugu.

Oraingoz, ez zaigu Tabirako igerilekuak zabalik edukitzeko epea laburtzeko erabakiaren berri eman

Ordaindu beharreko dirua berbera da, denbora gutxiagorako. Durangarrok udal instalakuntzen kalitateko zerbitzua merezi dugu, udako hilabeteetan gure denbora librea haizetara gozatzeko aukera. Eskubide bat da.

Eskatu litekeen gutxien da udal gobernuak azalpenen bat eman diezagula gainerako talde politikoei, eta herritarrei oro har.

Ederto hasi gara. Okultismoa ez da udal bat kudeatzeko kokalekurik egokiena.

Gobernu talde berriak lanerako izango duen dinamika ez dela hau izango sinetsi gura dugu

Talde popularrekook sinetsi nahi dugu ez dela hau izango gobernu talde berriak jarraituko duen dinamika, eta komunikazioa eta gardentasuna desio ditugu durangar guztioi eragiten diguten erabakietan.

** Erredakzioan itzulia*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2011ko ekainaren 24a - 10. urtea - 421 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Manaria, Otxandio, Zaldibar

Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KULTURA>

MUSIKA> KONTZERTUA

“Jendea oso emozionatuta dago kontzertuagaz; harrituta gaude”

1986-89 urteetan **Poliputos** taldean jardun zuten musikariak berriro elkartu dira, eta Plateruenean eskainiko dute kontzertua bihar. Elkarrekin jo barik hogeitaka urte zeramatzaten, orain aste bi Gasteizen aritu ziren arte

Zelako esperientzia izan zen Gasteizko Gaztetxeko kontzertua?
Oso sentsazio eta kritika onak eduki genituen, eta oso-oso ondo pasatu genuen. Nerbioak eta beldur apur bat ere sentitu genuen...

Zenbat urte egon zarete eszenatokira igo barik?
Taldekideotako bi, Bat Bitten taldean ibili ginen Poliputos utzi ondoren, baina kontzerturik jo barik 8 urte inguru generamatzan, eta 25 urte inguru abeslariek.

“Bost hilabetez jardun dugu konpromiso handiz entseatzen”

Publikoa aldatu egin da?
Gu ikustera joan ziren lagunak kenduta, Gasteizko kontzertuko gainerako ikuslegoa oso gaztea zen. Giro oso polita sortu zen.

Abeslari bik diharduzue?
Hori zen gure berezitasunetariko bat. Baina, ez pentsatu, 1980ko hamarkadan halako gauza arraroak egiten ziren; MCDn baxu-jotzaile bi zebiltzan, esaterako... Orduan edozer zen posible.

Berriro elkartu zaretenetik gogor jardun duzue entseatzen...
1980ko hamarkadako bi-hiru urte haietan egin ez genuena egin dugu: bost hilabetez oso serio eta konpromiso handiagaz jardun dugu entseguetan. Lan itzela izan da. Azkenean, sortuta geneuzkan bederatzi kanta, lau kanta berri eta hiru bertsio prestatu ditugu Plateruneko kontzerturako.

Bederatzi horien eta lau berrien artean alderik igartzen da?
Bai; handia, musikari zein mezuari dagokionez. Gaiak antzekoak diren arren, kanta berrietan hitzak landuagoak dira. Hala ere, mezuak oraindik ere oso *kañeroak* dira. Amodiozko kanta bat ere sortu dugu bost hilabeteotan.

“Hitzak landuagoak dira kanta berrietan, baina mezuek oso ‘kañero’ diraute”

Kanta guztiok bilduta, diskoa kaleratzeko asmorik baduzue?
Grabatu egin ditugu kantak, baina nahasketak egin barik daude. Litekeena da geure kabuz diskoren bat ateratzea. Polito geratu da grabazioa, baina lana egin behar da oraindik, eta orain momentuan ez daukagu astirik.

Antzekoak al dira duela 25 urteko eta oraingo kanten gaiak?
Bai, hasieran pentsatu genuen, 1980ko hamarkadan sorturiko kanta haiek desfasatuta egongo zirela beharbada. Orain, baina, konturatu gara, lehengo egoera mantentzen dela zentzu askotan; krisi ekonomikoa, errepresioa...

Zuek aldatu zarete?
Bai... Musikari dagokionez, egia da kanta berrietan igartzen dela ikutu *rock&rolleroagoa*, nahiz eta gure oinarria lehengoa den.

Inguruko jendeak zelan hartu du Poliputosen suspertzea?
Jendea oso emozionatuta dago; oso harrituta gaude horregaz. Betiko lagunak ondoan izatea itxaroten genuen, baina bi belaunaldi batu dira. Gasteizko kontzertuan seme-alaben aurrean jo genuen.

Iturriagaren ‘Durango 80’ dokumentalean parte hartzea izan zenuten elkartzeko akuilu?
Zilar Astearen barruan eskaini ziguten Plateruenekoek dokumentalean parte hartu genuenoi emanaldia eskaini ahal izatea. Gu animatu ginen, eta biharko kontzertuan Talde Sorpresa osatu duten 1980ko hamarkadako hainbat musikarik ere jardungo dute: Skakeo, Kaligula eta Los Lopez taldeetako musikariek osatu duten taldeak ere joko du. ■ I.Esteban.

Jaia eta “letxe txar apur bat” zuzenekoetako osagai

Poliputos boskoteak Elorrioko jai batzuetan eskaini zuen kontzertu batekoa da goiko argazkia. Eszenarioa eta plaza, biak ere jendez gainezka zeuden.

Plateruneko biharko kontzertuan ere publikoaren inplikazioa bilatuko dute musikariek. “Jendea beti identifikatu da gurekin”, azpimarratu du Joseba abeslariak. “Kutsakorra” da Poliputosen kontzertuetako giroa. Kontzertuak jaiaren eta “malaletxe apur baten” nahaste bat izaten zirela kontatu digute Plateruenean egin dugun hitzorduan. Taldea sortu zuten 1980ko hamarkadan legez, “jendea nazkatuta dago gaur egun ere”, dioskue, “urteetan motelduta eta inertziari jarraituz bizi izan garen arren”.

Poliputos deseginda egon den azken hamarkada biotan ere punk kulturak bere eragina ez ote duen eduki galdetuta, “musika punkia egin arren, askok jarrera motel hori eduki dute”, erantzun dute. Publikoaren inplikazio eta identifikazioari buruz jarraitu du Juanma gitarristak: “barbaridadeak edo, hobe esanda, egiak botatzen ditugunean, askok pentsatzen duena adierazten dugu”.

“Egiak botatzen ditugu, askok pentsatzen duena adieraziz”

Oroitzapenak eta anekdota asko metatu zituzten hiru urte intentsotan. Josebak esan digunez, “politena azken kontzertua izan zen: Eibarko Sanjuanetan Hilbeheran eskaini genuena”. Segundo Gobierno eta Cicatrizek ere jo zuten orduan. Astean behin, oso gutxi entseatzen zuten. Euren kezkei buruz idazten zituzten kanten letrak: “80ko hamarkadako giro nahasiari buruz”.

LITERATURA> SARIA

Urruzuno lehiaketan saritu dute Garazi Mugerza mallabitar gaztearen lana

Maiatzean jakin zuen Garazi Mugerzak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatzen duen Urruzuno literatur lehiaketako sarietako bat berari eskaini ziotela. Beste saridunekin batera irailean Bretainiara hamar eguneko bidaia egitea, hango gastuetarako 300 euro eta oroigarria jasoko ditu hamasei urteko mallabitarrak sari moduan

Zelan erabaki zenuen zure lan bat lehiaketan parte hartzeko bidaltzea?
Berrizko Institutuko euskara irakasleak banatu zizkigun Urruzuno lehiaketaren oinarriak, eta zortzi orrialdeko lan hauxe bidali nuen. Aurretik idatzia neukan, eta bidaltzera animatu nintzen.

Eta zein da kontakizunaren haria?
Senarra bisitatzera Alacant-eko espetxera doan emakumearen inguruko kontakizuna da, egun horren narrazioa. Emakume horrek sentitzen duenari buruzkoa da, batez ere, lana; bere ardurei buruzkoa.

"Senarra bisitatzera Alacant-eko espetxera doan emakumearen inguruan"

Zelan sortu zitzaizun lana gai horren inguruan idazteko ideia?
Nire amaren lehengusu bat ere Alacant-eko kartzelan egon zen preso. Orain Huelvara eraman dutena. Ni ere bisitan joan izan natzaio, eta baliteke kontakizun horren atzean bizipen horiek egotea.

Blog bat daukazu 'http://periotx1.blogspot.com' helbidean, eta dezenteko maiztasunagaz idazten duzu bertan.
Egia esan, idatzietarako ideiak badauzkat, baina azkenaldian ez dut sarrera berri askorik idatzi blogean. Normalean testu laburrenak eskegitzen ditut bertan.

Zelan bururatu zitzaizun bloga sortzea?
Berrizko Institutuko informatika klasean zabaldu genuen bloga, eta gero hori edukiz janztea da nik egiten dihardudana. Horrela bururatu zitzaidan nire kontakizun laburrak bertan sartzea.

Beti idatzi izan duzu?
Ez. Orain bost urte inguru herrian oso maitea zen Iñaki Mallagarai hil zenean egin zitzaion omenaldirako agur gutuna idatzi nionean ekin nion idazteari. Hortik aurrera idatzi dut gehiago.

Zer ematen dizu idazteak?
Zorretan nagoela sentitzen dudanean idazten dut batzuetan, lasaitasunaren bila moduan jarduten dut. Egia esan, ez dakit zergatik egiten dudan; txakur batek ere zaunka zergatik egiten duen ez dakien moduan... Beharbada, ahoz esaten ez ditudan gauzak dira idazten ditudanak.

Zer literatur genero lantzen jarduten duzu gusturen? Poesiarik idazten duzu?
Neure oroitzapenei eta sentipenei buruz idazten dut gehienetan, errealitatetik abiatuta, eta prosan beti. ■ I.E.

"Ideiak badauzkat, baina azkenaldian ez dut sarrera berri askorik idatzi"

"Berrizko Institutuko informatika klasean zabaldu genuen bloga"

BERTSOLARITZA> EMANALDIA

Txaber Altube bertsolaria Euskal Herriko eskolarteko txapeldun

Asteburuan Aguraingo Harresi aretoan jokatu zuten Euskal Herriko XXII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketan puntu gehien batu zuen abadiñarrak

Joan zen zapatuan Aguraingo Harresi aretoan jokatu zuten Euskal Herriko XXII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketan epaimahairarengandik punturik gehien batu eta Euskal Herriko txapela jantzi zuen Txaber Altube gazte abadiñarrak.

Adinaren araberako bere saileko txapela jantzi zuen Altubek: 14 eta 18 urte arteko bertsolarien artean, berau izan zen epaimahaiaren puntu gehien batu zituen bertsolaria. Euskal Herriko beste hamahiru bertsolari gaztegaz jardun zuen Abadiñoko gazteak Aguraingo finalean. ■ I.E.

Euskal Herriko beste hamahiru bertsolari gaztegaz jardun zuen Altubek

GEURE DURANGALDEA

Jon Ander Urkiaga
Ikaslea

Poesia

Poesia idatzi gurako nuke letra larriz: Poesia. Baina amak ez dit uzten. Poesia izkiriatu gurako nuke Ainhoaren logelako epeltasunetik irten eta Etiopiako bero zapara heldu arte; baina, esku latzegiak ditut, luma finegiak nire esku artean maneiatzeko. Poesia sortu orrialde elurtuetan, ahal dela herrialde zurituak belztuz. Buruak ezetz diost. Poema amaigabe bat, ez ahapaldirik, ez errimarik, ez eta koherentzia eta zintzotasunik (ez diot ezer zor nire munduari). Poesia idatzi espetxerik ezagutu barik, desorduetan zeharo horditurik egon barik, deserririk deserri ihesean aritu barik, desamodioa zer den ahazturik; poesia poesiagatik, besterik ez. Poesia idatzi gurako nuke behin ere poesia libururik zabaldu gabe. Poesia merkea, herriaren ahotik hartua eta herriari oparitua. Poesia mailukadaka bezainbat laztanka. Zintzotasunean galduriko poesia maltzurra. Edo maltzurkeriaz idatziriko poesia zintzoa. Ura oinarri izanik koktelik hibridoena sortu arteko poesia. Baina, diote nirea ez dela poesia. Poesia izan nahiko lukeen handiusteko testu baldar bat baino ez dela. Panfleto politiko poetikoagoak ere irakurri dituztela. Tabernetako komunetako ateetan ere izkribu poetikoagoak irakur litezkeela.

Baina, irakurle, gordeko sekretutxo bat? Esku artean paper koadrikulatu bat eta propagandako boligrafo bat harturik, lerrook komuneko tazaren gainean idazten nenbilela masa fisiko irregular batek uraren kontra talka egin eta nire berboi azken puntua bortxaz inp(r)osatu diedanean... poeta sentitu naiz, inori baimenik eskatu beharrik sentitu barik.

Kanon orotatik aske.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net
EKAINAK 25 22:30ean
POLIPUTOS
KONTZERTUA.Sarrera: 5euro.
UZTAILAK 1-3 22:00etan-20:00etan
BEGIRA www.begiraphoto.com
ARGAZKI PROIEKZIOA.Sarrera doan.
UZTAILAK 8 23:30ean
GAU ELEKTRONIKOA
IKER UNDERSOUND & RUBEN COSTAS
MUSIKA.Sarrera: TBA.
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

ULANNAH
EUSKAL BALKAN FOLK
Uztailak 1 • 21:00
Tabirako Parkean
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda
artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

aTxondoKo san pedRo jaiak

anboto

Atxondoko udalak

San Pedro jai zoriontsuak opa deutsuez!

Bakailao, tortilla eta paella onenak

Sukalki txapelketak jendetsuak izaten dira

Sukalki lehiak jaietako ekimenik jendetsuenetakoak izaten dira. Aurten, ohiko paella eta tortilla txapelketei hirugarren bat gehituko zaie: Bakailao Txapelketa. Lehiaketagaz urte askoan jai batzordeko kide izan zen eta bakailao prestaketan abila zen Jose Ramon Korpion gogoratu gura dute. Bakailao Txapelketa uztailaren 2an, 13:30an, egingo dute, udaletxeko lorategian. Irabazleak 150 euro jasoko ditu.

Paella Txapelketa zapatu honetan izango da, udaletxeko lorategian. Aurten ere ekimen jendetsua izango da. Lehiaketarako eta ondorengo herri-bazkarirako 56 koadrilak eman dute izena; guztira, 1.284 lagun daude apuntatuta, iaz baino 160 gehiago, hain zuzen ere. Dena dela, kopuru horrek gora egingo du, egunean bertan ere izena eman daitekeelako. Ekimenak izan ohi duen arrakasta ikusita, 10:00etan hasiko dira lekuetarako zozketa egiten.

Amaitzeko, uztailaren 1ean, 20:00etan hasiko den Tortilla Txapelketa 18 urtetik beherako gazteei zuzenduta dago. Kategoria bitan banatuko dituzte parte-hartzaileak: 10-14 urte bitartekoak eta 15-18 urte bitartekoak.

Bakailao Txapelketagaz Jose Ramon Korpion gogoratu gura du jai batzordeak

Paella Txapelketa eta bazkarian 1.284 lagunek parte hartuko dute; iaz baino 160 gehiagok

Argazkia: Peio Agirre

Antxia-Berasaluze, Oizpe pilota txapelketako finala

Pilotari biek erraz irabazi zituzten finalerdiak

Oizpe pilota txapelketako finala uztailaren 2an, 17:00etan, jokatuko dute Ander Antxiak eta Asier Berasaluzek lau t'erdian eta nagusien mailan. Berriztarrak Amantegi abadiñarra kanporatu zuen finalerdietan; 16 tanto egin zizkion sakez. Abadiñarrak 22-7 menderatu zuen Jaunenea; 10-0 hasi zen irabazten. Orain arte birritan jokatu dute elkarren kontra kaiolan eta bietan Antxiak irabazi du. Bestalde gaur III. Frontenis Txapelketako finala jokatuko dute, 22:00etan. Txirrindularitza zaleek ere badute zer gozatua.

Domekan 20:00etan Olakuetan hasi eta Elizondon amaituko den kronoeskalada hasiko dute.

Paintballean aritzeko aukera, lehenengoz

Gazteen eskariari erantzunez, paintball saioak prestatu dituzte

Berrizburu kiroldegiko aparkalekuan paintball-a praktikatzeko aukera egongo da aurten, lehenengoz. Jai batzordeko kide den Karmen Amezuaren esanetan, "herriko gazteen eskaria izan da; modan dagoela eta ekitaldi interesgarria dela iritzi diote, eta antolatzea erabaki dugu".

Ekainaren 30ean, txanda bi egongo dira 10 urtetik gorakoentzat: 12:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

Ondoren, 19:00etatik 20:30era, 18 urtetik gorakoentzako txandak antolatuko dituzte aparkalekuan.

FORJAS DE BERRIZ S.L.
Forja eta beroko estanpazioa, neurrira eginiko piezak
Iturriza, 22
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 94 682 65 20
Faxa: 94 682 65 21
E-mail: sales@forjasdeberriz.com
www.forjasdeberriz.com
Nº SGI-1956756
BGA

ATB
CENTROS DE BRICOLAJE
Brico Centro
sake

Bertan izango dozu:
Elektrizitatea - Burdindegia
Lorezaintza tresnak - Fitosanitarioak
Pintura eta osagarriak - Animalia
txikien elikadura - Etxeko tresnak
Garbikariak - Arropa eta
oinetakoak -Automobil tresnak

SAKE S.A. BRICO CENTRO EUSKOLUR

Eitua Industriagunea
San Fausto eraikina, 1
48200 BERRIZ
Tel.: 94 622 53 34
Fax: 94 622 54 56
euskolur@sake.es

“Aktibo egotea garrantzitsua da; 20 urtegaz nagusia den jendea dago”

Gure Izerdia elkarteak irakurriko du aurten pregoia. Asteon Santa Isabel eguneko bazkarirako txartelak saldu eta saldu dabiltza

Pregoilari izango zarete aurten. Pozik zaudete?
Bai. Azken batean jaietan parte hartzeko modu bat da, eta guri ere heldu zaigu gure txanda. Beleni eskatu genion pregoia irakurtzeko, eta hau laguntzeko beti prest egoten denez...

Zelan ospatzen dituzue jaiak? Santa Isabel egunean bazkaria edukitzen duzue...
Bai, 65 urtetik gorakoak eta euren bikoteak egoten dira gonbidatuta. Bikoteak hogei urte badauzka ere, berdin da; hori zailagoa bada ere!

(Berbetan gabiltzala bi andre sartu dira bazkaritarako txartela eskatzera).

Jende asko batzen zarete Santa Isabel egunean?
180-190 pertsona batuko gara. Polikiroldegian izaten da, eta bazkalostean erromeria izaten dugu; bikote bat etortzen da eta oso ondo egoten da. Gure garaiko abestiak dira, ia-ia testamentu zaharrekoak... baina ondo! Bazkaria bajatzeko ederto egoten da. Egun horretan gauza asko egoten da Berrizen. Suak ere bai.

Paella Eguna ere ederra izaten da, ezta?
Herri osoa egoten da bazkaltzen, eta kanpoko lagunak ere gonbidatzen ditugu.

> “Santa Isabel egunean 180 lagun inguru batuko gara bazkaltzeko”

Urtean zehar zer ekitaldi antolatzen dituzue?
Bidaiak, egun-pasak, ikastaroak –duela gutxi masaje eta aromaterapia izan dugu– eta hitzaldi asko ere bai. Historiako ikastaroak izaten ditugu, eta gero, ikastaroa amaitzen dugunean irteera bat egiten dugu. Azkena, adibidez, Laguardiara egin genuen, eta oso interesgarria izan zen. Zu bakarrik ere joan zaitezke bertara, ardo batzuk hartu eta herria ikustera, baina ez da gauza bera gida batekaz joatea; asko ikasten da. Logroñon eta Iruñean ere egon gara gida baten laguntzagaz. Cavarcenon egon gara azken asteburuan. Bideo kamaragaz grabatu zigun bideoa gidak, eta autobusean bueltan kamera lasterrean ipini zigun grabatutakoa. Charloten pelikula bat ematen zuen! Aldapak astiro bajatu genituen guk, baina han arin-arin genbiltzan. Itzeleko barreak bota genituen!

Jende asko animatzen da horrelako irteeretara?
Bai. 52 joan ginen Cavarcenora. Normalean autobusa beteta joaten gara.

Zenbat bazkide zarete Gure Izerdia elkartean?
336. Talde polita egiten dugu, baina Berrizko jubilatuen erdia baino gehiago ez dira bazkideak.

Zergatik uste duzue jendea ez dela animatzen?
Jubilatu berriei eta 62 urtegaz-eta jubilatuta daudenei hona etortzeak atzeraka egiten die, jende nagusia dagoelako. Geldirik dagoen jendea besterik ez dagoela pentsatuko dute agian.

Zahartze aktiboaren ideia entzuten da gaur egun.
Bai. Gauzak egiten ibiltzea oso garrantzitsua da. Igarri egiten duzu. Badago 20 urteko jendea nagusia dena, eta 80 urtegaz aktibo dabilenak espiritu gaztea edukitzen du.

> “Ez da gauza bera herriak bakarrik edo gidekin bisitatzea; asko ikasten dugu”

> “Jubilatu berriak ez dira elkartera etortzen, jende nagusia dagoelako-edo”

Atxondoko JAI EGITARAUA

EKAINAK 25, ZAPATUA
• **08:00etan** Arrantza txapelketa.

EKAINAK 26, DOMEKA
• **08:30ean** Mendi martxa.

EKAINAK 28, MARTITZENA
• **16:30ean** Tailerra.
• **17:30ean** Txopo txikia.
• **18:00etan** Bizikleta poteoa.
• **19:30ean** Pregoia Udaletxeko balkoitik, Asuntze mendi taldearen eskutik. Ondoren, txopo handiaren igoera trikitilariekin. Gero, sardina jana.
• **21:00etan** Pilota partidak: herriko txapelketaren finalak. Ondoren, karaokea, Gaztetxean.

EKAINAK 29, EGUAZTENA
San Pedro Eguna
• **12:30ean** Meza.
• **17:00etan** Umeentzat antzerkia, udal ludotekan: *Txorimalo*.
• **20:00etan** Euskal dantzak.
• **22:30ean** Kontzertuak, Gaztetxean: Ghetto + Ekaitz.

EKAINAK 30, EGUENA
San Pedro Txiki Eguna
• **11:00etatik 14:00etara** Umeentzako puzgarriak eta jumping-a. 16:00etatik 19:00etara ere bai.
• **14:30ean** Bazkaria jubilatuentzat.
• **18:00etan** Bigantxak.
• **20:00etan** Kale antzerkia: *Ellas bailan solas* (Pikor konpainia).
• **22:30ean** Masaje tailerra, gimnasioan.

UZTAILAK 1, BARIKUA
• **20:30ean** Tortilla eta bakailao txapelketarako jakiak aurkezteko azken ordua. Ondoren, Arantxa eta Pantxo, plazan.
• **00:00etan** Kontzertuak, Gaztetxean: herriko taldeak + Kilauea + Sermond's + Sostendunek (erromeria).

UZTAILAK 2, ZAPATUA
Gazte Eguna:
Danok mozorrotzera!
(Gaia: hondartza)
• **13:00etan** Gaztetxean hasita poteoa.
• **14:30ean** Paella jana, frontoian. Ondoren, olinpiadak.
• **18:30ean** Motxallaband elektrotxarangak alaituta poteoa, herriko plazan hasita.
• **22:30ean** Kontzertua, Atxondoko Gaztetxean: Gazte Itzala + Zarraparra + Gozo-gozo (erromeria).
• **23:30ean** Erromeria, plazan.
• **00:00etan** Suak.
• **00:00etan** Kalejira errepresaliatu politikoen alde.

UZTAILAK 3, DOMEKA
• **12:00etan** Umeen pilota partidak.
• **17:00etan** Herriko igel txapelketa, Itziar tabernan.
• **19:30ean** pilota+bertso saioa. Ondoren, saiheskia, plazan. Txopoaren jaitsiera eta, Gaztetxean, San Pedro jaien errepaso bideoa.

UZTAILAK 23, ZAPATUA
• **15:00etan** 4x4 Triala. 8

ESTAMPACIONES LARRETXE S.L.
• PIEZAK TROKEL PROGRESIBOEN BITARTEZ FABRIKATZEA • HAGAXKAK HOTZEKO ESTANPATZEA • ESTANPATZEA ORO HAR
Jauregi kalea, z/b - ARTIA ind. 5.pab. - 48 292 ATXONDO
TEL.: 946 231 645 - Faxa: 946 231 436 - www.larretxe.com

BURDINAK, S.L.
EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK
Artia indus. Tel.: 94 658 31 64 Faxa: 94 658 34 16 ATXONDO

Eskaintza zabala ume, gazte zein edadekoentzat

Kontzertu zein antzerki ugari egongo da ikusgai Sanpedroetan.

Ekitaldiz beteta datorkigu aurten Atxondoko Sanpedro jaien egitaraua.Urtero legez, eskaintza kulturala egitarauko zati garrantzitsua da; besteak beste, antzerki eta kontzertu ugari ospatuko dira jaiak irauten duten egunetan zehar.

San Pedro egunean umeentzako antzerkia egongo da, Txorimalo udal ludotekan

Ekainaren 29an, Sanpedro egunean, umeentzako antzerkia egongo da; Txorimalo udal ludotekan izango da hori.

Nagusiagoek biharamunean izango dute antzerkiaz gozatzeko aukera; Pikor dantza taldeak *Ellas bailan solas* kale antzerkia eskainiko du: bi andrek zaharren egoitzatik ihes egingo dute, eta bizi dituzten abenturak kontatuko ditu obrak. Udako giroak lagunduta, jaietako ekimen ugari kalean ospatuko dira; Gazte Egunean, uztailaren 2an, arratsaldeko 18:30etik aurrera, poteo animatua egingo da Motxallaband elektrotxarangagaz batera. Euskal dantzak ikusteko aukera ere egongo da.

Pikor antzerki taldeak 'Ellas bailan solas' kale emanaldia eskainiko du ekainaren 30ean

Rantxerak gustuko dituztenek, uztailaren 1ean Arantza eta Pantxo bikotea ikusteko aukera izango dute

Herritarrak protagonista

Musikari dagokionez, kontzertu eskaintza zabala egongo da; herriko taldeak izango dira protagonista. San Pedro egunean, Ghetto eta Ekaitz taldeen kontzertua egongo da ikusgai. Uztailaren 1ean, ostera, rock doinuen txanda izango da: Kilauea eta Sermond´s taldeek kontzertua eskainiko dute; gauari amaiera emateko, Sostendunek taldeagaz erromeria egongo da. Uztailaren 2ko Gazte Egunean, ostera, Gazte Itzala, Zarraparra eta Gozo-Gozo taldeak arituko dira Gaztetxeko oholtza gainean. Rantxerak gustuko dituztenek uztailaren 1ean Arantza eta Pantxo entzutera joateko aukera izango dute. Tortila eta bakailao txapelketa amaitzean hasiko da emanaldia.

Uda giroko Gazte Eguna, uztailaren 2an

'Hondartza' dute mozorrotzeko gaia

Menditik hurrago eta lotuago egon arren, kostaldeagaz hartuemana izango dute aurtengo jaiek Atxondon. Izan ere, uztailaren 2an Gazte Eguna ospatuko dute bertan, eta parte hartzea handitzeko, mozorrotzeko deia egin dute antolatzaileek. 'Hondartza' izango da disfraza atontzeko gaia. Prestatu, beraz, bainujantzia, sandaliak, eguzkitako krema, betaurrekoak, toalla...

Goizetik ibiliko dira gazte eta ez hain gazteak kalez kale. Eguerdiko 13:00etan poteoa hasiko dute Gaztetxetik, eta 14:30ean paelladan elkartuko dira, frontoian. Bazkalostean olinpiadetan parte hartuko dute, eta arratsaldean, 18:30ean, animazioz beteko dira kaleak Motxallaband elektrotxarangagaz. Gauean kontzertuen txanda helduko da, Gaztetxean. Erromeria ere hasiko da plazan, eta 24:00etan su artifizialak jaurtiko dituzte. Errepresaliatuen aldeko kalejira ere deitu dute.

Eguerdiko 13:00etan poteoa hasiko dute Gaztetxetik, eta 14:30ean paelladan elkartuko dira

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52
Banatzailea:

Garaje ateak / Automatikoak / Eskuzkoak
Instalazioak / Konponketa / Mantenua
ATEMATIK
Artia industrialdea, z/g Tel.: 94 623 15 25 / Faxa: 94 623 18 95
48292 ATXONDO -BIZKAIA

Bertsoa eta pilota, aldi berean

Uztailaren 3an izango da ikuskizuna, arratsaldez


K.A.

Nobedadeen artean egongo da, zalantzarik barik, uztailaren 3an ospatuko den bertso-pilota saioa. Kirola modu alaian ikusteko aukera eskainiko dute, beraz, frontoian. Pilotariek jokatu ahala, bertsolariak kontrakantxatik animatzen joango dira, abestuz. Animatzen eta, segurutik, baten baino gehiagotan pilotariak ziztatzen.

Partidu bi jokatuko dituzte arratsaldeko 19:30etik aurrera, eta protagonistak ondo ezagunak dira, gainera. Lehenengo norgehiagokan Uriarte abadiñarrak Fuertes izango du lagun, Zuheros atxondarra eta Landaburu elorriarraren kontra. Zuherosek etxean jokatzearen faktorea izango du alde.

Pilotariak: Uriarte, Fuertes, Zuheros, Sainz, Landaburu, Berasaluze IX, Eugi eta Goñi III

Xabier Amuriza eta Eneko Abasolo "Abarkas"-ek jardungo dute bertsotan

Bigarrenean profesional mailatik igarotako zenbait pilotarik irtengo dute kantxara: Berasaluze IX.a eta Sainz berriztarrek Eugi eta Goñi III.a izango dituzte parez pare. Ez da egunero ikusten halako partidurik.

Gatza eta piperra gehitzeko asmoz, Xabier Amuriza eta Eneko Abasolo "Abarkas"-ek jardungo dute bertsotan. 22ra ailegatzea eta jendearen txaloak jasotzea, ikuskizun honetako protagonisten helburuak.

Umeek ere badaukate jaia zelan ospatu

Gaztelu puzgarriak eta antzerki emanaldiak eratu dituzte txikienentzat

Ekainaren 28an hasiko diren jaietan umeei begirako ekintzak ez dira faltako. Halako egunak ilusio handiz bizi izaten dituzte etxeko txikienek.

San Pedro Txiki egunerako –ekainaren 30erako– antolatu dituzte, batez ere, umeentzako ekintzak. Aipagarriena, beharbada, gaztelu puzgarriak dira, goizez eta arratsaldez egongo direnak, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Jumpinga ere egokituko dute ausartenentzat. Bestalde, hilaren 29an antzerkia ere eskainiko diete Udal Ludotekan, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Martitzen honetan hasiko dira jaiak, eta umeek tailer zein txopo txikian parte hartu ahalko dute egunean bertan.

Lehiarako zein jolaserako ekitaldiak

Kirol jarduerek eta aparteko lehiaketek piperra eta gatza ekarriko dute jaietara

K.A.

Pilotak tarte berezia edukiko du Sanpedro jaietan. Azkeneko urteetan ume eta nagusien txapelketak berreskuratu dituzte, eta aurten ere seguru ikusmin handia sortuko dutena. Herriko nagusien mailako finalak ekainaren 28an jokatuko dituzte, iluntzeko 21:00etatik aurrera. Umeek, bestalde, uztailaren 3ra arte itxaron beharko dute; eguerdiko 12:00etan ipini dute hauentzako hitzordua.

Biharko arrantza txapelketa eratu dute, eta etzi, mendi martxa. Gainera, uztailaren 3an igel txapelketa jokatuko dute Itziar tabernan, 17:00etan. Uztailaren 1ean tortilla eta bakailao txapelketa burutuko da. Azkenik, uztailaren 23an 4x4 ibilgailuen Triala ospatuko da.

ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA
BIRZIKLAGARRIAK
Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
tel.: 94 623 17 17 Faxa: 94 623 17 99
CEMOSA
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

Asuntzeko lagunak arduratuko dira Sanpedroetako pregoiaz

2010eko abenduan jaio zenetik, hainbat ekimen antolatu ditu mendi klub honek

Lehenengo ekitaldi "ofiziala" Gabonetan egin zuten; ohiturazko Anbotorako igoera

Domekarako mendi martxa antolatu dute Apatako jai batzordekoekin batera

Urtarrilean jaio zen Asuntze mendi kluba, hazia lehenagotik ereinda zegoen arren. Hain zuzen ere, abendu amaierako aurkezpenaren ondoren, Anbotoko urteroko igoera izan zen lehenengo ekitaldia; Asuntzeko kide den Aitor Belarren berbetan, hori izan zen lehenengo ekitaldi "ofiziala". Ordutik aurrera, hainbat izan dira mendi klubak antolaturiko ekimenak. Egindako lanaren aitorpen moduan, Sanpedroei hasiera emango dien pregoia irakurtzeaz arduratuko dira Asuntzeko lagunak. Aitor Belarrek azaldutakoaren arabera, oso pozik jaso dute mendi klubeko kideek pregoilari izatearen albistea.

Jai gosea egiteko

Sanpedroak martitzenean, ekainaren 28an, hastekoak diren arren, aurrerapen legez mendi martxa antolatu dute domekarako Asuntzekoek, Apatako jai batzordekoekin batera. Goizeko 8:30ean abiatuko da, Apatako plazatik, jaietako mendi martxa. Martxa hori egiten den 22. biderra izango da aurtengoa. Guztira, 18 kilometroko ibilaldia izango da, eta Atxondo zeharkatuko du.

Mendizaleen bilgunea

Esandako moduan, Asuntze mendizaleen elkargune izateko asmoagaz jaio zen 2010 amaieran. Ordutik, ekimen ugari antolatu ditu mendi klubak; besteak beste, *Atxondo mugarriz mugarri* itzulia antolatu zuten otsailean. Belarrek azaldutakoaren arabera, hilean behin irteera bat egiten saiatu dira, gutxienez; "nahiko martxa egin ditugu, eta herritarrek emandako erantzunagaz pozik gaude". Orokorrean, atxondarrek egindako harreraren baloraziо oso positiboa egiten dute.

Aurrera begira, pentsaturik duten programagaz jarraituko dutela dio Belarrek. Besteak beste, irailean Pirinioetara irteera antolatzeko asmoa dutela aurreratu du Belarrek. Horrez gainera, Iurretako Zaldai mendi taldeagaz ekimenen bat egiteko aukera aztertzen dabiltza.

Irailean Pirinioetara irteera egiteko asmoa agertu dute Asuntzeko kideek

Mendizaleen elkargunea izateko asmoz jaio zen Asuntze mendi kluba

NEKAZARITZA KOMERTZIALA

BASERRI TRESNAK

prezio bereziak

Konponketa eta salmenta:
traktoreak, segamakinak, motozerrak, motoaitzurrak, moztaileak, belarra mozteko makinak, sasiak garbitzeko makinak,...

24 hilabeterako finantziazioa errekargurik gabe!

650€-tik gora
MOTOAITZURRA

MOTOZERRAK
GASOLINAZKOAK
199€-tik gora

169€-tik gora
GASOLINAZKO
MOTOSEGAK ETA SASI-GARBITZEKOAK

BELARRA MOZTEKO MAKINA
289€-tik gora

2.900€-tik gora
BELARRA MOZTEKO TRAKTOREAK

HAIZE MAKINAK XURGAILUAK
245€-tik gora

Eitua industrialdea, 66 BERRIZ • Tel.: 94 682 40 87

BERRIZ
SAN PEDRO ETA SANTA ISABEL JAIAK
2011

anboto

ez dugu emakumeen aurkako
indarkeriarik ezta eraso
sexistarik onartuko
JAIETAN ERE EUSKARAZ
berrizko
UDALA

Berrizko JAI EGITARAUA

EKAINAK 24, BARIKUA
• **12:00etan** 2011ko San Juan Deunaren jaien barruan meza, auzoko ermitan.
• **19:00etan** Pregoia eta txupinazoa Udaletxean, Berrizko Gure Izerdiagaz. Jarraian jaietako kartel lehiaketako sari-banaketa Udaletxean. Ondoren, sardina-jana.
• **19:30etik-21:00etara** Erromeria Joxe Mendizabalegaz.
• **22:00etan** San Pedro eta Santa Isabel III. Frontenis Txapelketa, Kiroldegian.
• **22:30ean** Erromeria Joxe Mendizabalegaz.
• **23:30ean** Txosnagunean, gau elektronikoa: Oren Bi Live + Iker Undersound + Ruben Costas.

EKAINAK 25, ZAPATUA (Koadrilen Eguna)
• **11:00-14:00** eta **16:30-19:00** Elizondotik Olakuetarainoko trena, Berrizko Merkatari Elkarteak antolatuta.
• **14:00etan** Paella lehiaketa, Udaletxeko lorategian.
• **17:30ean** Karta Joko Lehiaketa: mus, tute eta briska. Izen-ematea ordu erdi aurretik.
• **17:30etan** Gorriti eta animaliak, Elizondo plazan.
• **19:30etan** Herriko Igel Txapelketa. Izen-ematea ordu erdi aurretik.
• **20:30etik 21:30era** Erromeria Trakets taldeagaz; 23:30ean ere bai.
• **23:30ean** Kontzertua: Zain eta Zea Mays.
• **24:00etan** Bolo Txapelketa.

EKAINAK 26, DOMEKA
• **12:00etan** 2011ko San Juan Deunaren jaien barruan meza, auzoko ermitan. Ondoren, San Lorentzo dantza taldearen saioa.
• **17:30ean** Bizikleta martxa herrikoia, udaletxearen aurrean hasita.
• **19:00etan** *Pomperia, el maravilloso mundo de las pompas de jabon*, Elizondon. Jarraian, ponpen tailerrak.
• **20:00etan** Kronoeskalada Olakuetatik Elizondoraino.
• **22:00etan** Kale antzerkia, Elizondon: *Anomalia Magnetika* (Markeliñe). Euria bada, Berrizburun.

EKAINAK 27, ASTELEHENA
• **11:30ean** Ping-pong, Xake eta Dama txapelketak, 16 urtetik beherakoentzat, Iturriza kaleko parke berrian.
• **18:00etan** Potxin eta Patxin pailazoak, *Zirkoa* ikuskizunagaz, Elizondo plazan.
• **21:00etan** Kale antzerkia, Elizondon: *Diabolo Clasic Metal* (Infoncundibles).

EKAINAK 28, MARTITZENA
• **11:30ean** Tribiala, 12 urtetik gorako gazteentzako, udaletxeko lorategian.
• **17:00etatik 19:00etara** Kulki taldeagaz artzainen jolas eta jokoak, udaletxeko parkean.
• **19:00etan** Bertso saioa, Elizondo plazan. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.
• **20:00etan** Donien Atxa eta Dantzari dantza entsegua.
• **22:30ean** Drindots musika taldeagaz dantzaldia, Elizondon.

EKAINAK 29, EGUAZTENA (San Pedro Eguna)
• **11:00etan** Margo lehiaketa umeentzat, udaletxeko parkean.
• **12:00etan** Meza nagusia eta Dantzari dantza.
• **17:00etan** Umeentzako betiko jolasak, eskolako patioan.
• **18:00etan** Tiragoma txapelketa denontzat, udaletxeko parkean.
• **19:00etan** Mariachi Imperial (Mexico) taldeagaz kalejira, Olakueta plazatik Elizondoraino.
• **20:00etan** Dantzari dantza.
• **21:30ean** Mariachi Imperial (Mexico) taldearen kontzertua, Elizondo plazan.

EKAINAK 30, EGUENA
• **12:00-13:30 /17:00-19:00** Paintball-a 10 urtetik gorako neska mutilentzat, Berrizburu kiroldegiko aparkalekuan. 19:00etatik 20:30era, 18 urtetik gorakoentzat.
• **20:00etan** Kale antzerkia, Elizondon: *Gaur egungo kontuak* (Zuzarazu).
• **20:30ean** Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua, parrokian.
• **21:30ean** Musika eta jaia Dj Robertegaz.
• **23:00etan** Bits jaia.

UZTAILAK 1 BARIKUA (Santa Isabel Eguna)
• **12:00-13:30 / 17:00-20:00** Umeentzako jolas parkea, eskolako patioan eta Elizondon.
• **17:00etan** Karta joko lehiaketa 18 urtetik beherako gazteentzat: tute, briska eta seiak. Izen ematea ordu erdi aurretik.
• **19:00etan** Herriko igel txapelketa. 18 urtetik beherako gaztetxoentzat.
• **20:00etan** Tortilla txapelketa. Ordurako tortillak udaletxeko sarreran aurkeztu behar dira: kategoria bi izango dira: 10 urtetik 14ra eta 14 urtetik 18ra.
• **22:00etan** Gazteentzako bolo txapelketa (18 urtera artekoak).
• **22:30ean** Luhartz musika taldeagaz erromeria Elizondon.

UZTAILAK 2, ZAPATUA (Santa Isabel Eguna)
• **11:30ean** Trikitilariekin kalejira Olakuetatik.
• **12:00etan** Meza nagusia eta Dantzari dantza.
• **13:30ean** Bakailao lehiaketa, udaletxeko lorategian. I. Jose Ramon Korpion Memoriala. Ordurako aurkeztuko dira kazoelak.
• **14:00etan** Jubilatuentzako bazkaria eta dantzaldia, Berrizburu kiroldegian.
• **16:30ean** Euskal Erromerixie Ansorregi taldeagaz. 14:30ean, herri bazkaria, udaletxeko lorategian (12 eta zortzi euro).
• **17:00etan** IX. Oizpe Pilota Txapelketa Berrizko Udala Sariko finalak, frontoian.
• **20:00etan** Dantzari dantza.
• **21:00etan** Tortilla lehiaketa, udaletxeko lorategian.
• **22:30ean** Laiotz musika taldeagaz dantzaldia, Elizondo plazan. 23:20ean ere bai.
• **23:00etan** Suak.

Musika, antzerkia zein bertsolaritza

Kontzertuak, DJ emanaldiak, kale antzerki emanaldiak, bertsolarien saioak... aukeran jaietan

Bihar gauekoa da Berrizko jai batzordeak osaturiko egitarauko rock kontzertu nagusia. Herriko Zain laukoteak eta Zea Mays taldeak jardungo dute txosnaguneko oholtzan. Baga-Biga disketxeagaz iazko urtean argitaratu zuen *XXI. mendeko piratak* diskoa aurkeztuko du Zainek, eta *Era* diskoko zein euren ibilbide luze eta arrakastatsuko kantak eskainiko dituzte Zea Maysekoek.

Askotariko gustuak asetzeko doinuak eskaintzen ditu jaietako egitarauak; jaien lehenengo egunean, gaur, Ruben Costas, Iker Undersound, eta Oren Bi dj-en emanaldia izango da, esaterako.

Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak orain gutxi estreinatu duen *Anomalía magnética* obra ikusteko aukera ere eskaintzen du, bestalde, Sanpedro eta Santaisabel jaien egitarauak. Ekainaren 26an, 22:00etan, izango da kale antzerki emanaldia.

Zain laukote berriztarrak eta Zea Maysek joko dute bihar, txosnaguneko kontzertuan

Antzerkigintzagaz hitzordu berezi bat ere badago, ekainaren 30ean: Zuzarazu taldea sortu duten Gaztelekuko kideek prestatu duten *Gaur egungo kontuak* kale ikuskizuna izango da ikusgai, 20:00etan.

Bestalde, Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren bertso saioa izango da, ekainaren 28an, 19:00etan, Elizondon. Maite Berriozabalek emandako gaiekin jardungo dute.

Ume eta gazteendako apropos pentsatuak

Ekainaren 25ean hasita, egunero egongo da ume eta gazteentzako ekitaldiren bat

Jai batzordean, ume eta gazteengan pentsatuta antolaturiko hainbat ekitaldi jaso ditu Berrizko jaien egitarauak. Asteburu zein astegunetan ere, egun guztian zehar izango dituzte gaztetxoenek jaiaz gozatzeko proposamenak: ekainaren 26an, esaterako, Pomperia taldearen xaboi-burbuilen ikuskizuna izango da, 19:00etan, Elizondon. Hamasei urtetik beherakoei zuzendurikoak dira ekainaren 27 goizean aukeran izango diren ping-pong, xake eta dama txapelketak ere. Egun horretan, Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia izango da gero, 18:00etan hasita.

Ekainaren 26an, esaterako, Pomperia-ren xaboi-burbuila ikuskizuna aukeran

Ekainaren 28an, gazteentzako triala eta artzainen jolas eta jokoak izango dira aukeran, eta, besteak beste, margo lehiaketa eta umeentzako jolasak, hurrengo egunean.

Santa Isabel eguna ospatzeko, erromeria

Jaietako bigarren zapatukoa da Berrizko jaien barruko Euskal Erromeria Eguna, Santa Isabel egunekoa. Goizetik izango dute dantzazaleek eguna erromeria giroan pasatzeko aukera.

Olakuetan hasi eta egunotan jaiaren gunea den Elizondora arte kalejiran abiatuko dira, 11:00etan, trikitilariak. Ondoren, Udaletxeko lorategian herri-bazkaria eta erromeria ospatuko dituzte.

MUSIKA> JAIALDIA

Prest daukate Elorrion kultur emanaldien udako Musikaire

Soul Tellers taldearen emanaldiagaz ekingo diote Elorrion Musikaire jaialdiaren uda honetako programazioari; bertako zein beste herrialde batzuetako haizetarako emanaldiei

Datorren barikuan, uztailaren 1ean, ekingo diote elorriarrek eta bertako eskaintza kulturala gerturatzera hurreratzen diren bisitari kulturzaleek Musikaire jaialdiaren programazioa dastatzeari. Musika, dantza, antzerkia zein zirkua, Euskal Herriko zein beste hainbat herrialdetako sortzaileen eskutik dakartza, beste uda batez, Elorrioko Musikaire jaialdi kulturalak.

> Argazkiko Ara Malikian eta Fernando Egozcue oholtzan, besteak beste

> Musika eskaintza anitza dakar jaialdiak; zazpi kontzertu izango dira

Argazkiko biolin-jotzaile armeniarrak ez du Elorrion kontzertua eskaintzen duen lehenengo aldia izango; aurretik ere egona da Elorrion. Uztailaren 2ko jaialdiaren bigarren hitzordurako dator Musikairera Malikian. Aurtengo aldian, Fernango Egozcueren boskoteagaz eskainiko du emanaldia Malikianek, 22:30ean hasita, Tola jauregian kontzertua. Malikianen biolina laguntzen,

Egozcue argentinarraren gitarra, pianoa, kontrabaxua eta perkusioa ere izango dira.

Mundu bat musika dakar uztailean Musikairek Durangaldera. Uztailaren 1eko Soultellers taldearena izango da lehenengo musika emanaldia; 1960 eta 70eko

> Haizetarako antzerki eta zirku emanaldiak ere jaso dituzte egitarauan

hamarkadetako soul musika dakarte Soul Tellers taldekoek Londresetik, baina Joseba Tapiaren trikitixak zein Diego Cortésen flamenkoak edo afrikar erroak dituen Mulatu Astatkeren jazzak ere beteko ditu Elorrioko zeru oskarbiak. Antolatzaileek aurkezpenean diotenez, aurten ere enkargatu dituzte "zeru garbia, ilargi betea, haize epela eta gaugiro sorginak".

Belarriak, begiak eta barruak gozatzeko musikaz gainera, haizetarako antzerki eta zirku emanaldiak ere jasotzen ditu Musikaire 2011 egitarau oparoak. ■ I.E.

EGITARAUA

Uztailak 1, 22:30ean
Soul Tellers,Tola jauregian

Uztailak 2, 22:30ean
Ara Malikian & Fernando Egozcue, Tola jauregian

Uztailak 3, 22:30ean
Markeliñeren 'Anomalía magnética', plazan

Uztailak 4, 19:30ean
Niño Costriniren 'Humanus Comicus', plazan

Uztailak 8, 22:30ean
Joseba Tapia, Argiñetan

Uztailak 9, 22:30ean
Diego Cortés, Argiñetan

Uztailak 10, 22:30ean
Oreka Tx, Kukai eta Amaren Alabak-en 'Hostoak', plazan

Uztailak 15, 22:30ean
Pelmanec, 'Don Juan memoria amarga de mí', Argiñetan

Uztailak 16, 22:30ean
Morfeo-ren 'El sombrero de tres picos', Argiñetan

Uztailak 17, 22:30ean
Circus Tanzia-ren 'Fragil', plazan

Uztailak 22, 22:30ean
Mulatu Astatke, plazan

Uztailak 23, 22:30ean
Amsterdam Klezmer Band, plazan

MUSIKA> ELEKTRONIKA

Oholtza bertako DJ-ei zabalik Sweet & Vicious diskotekan, barikuetan

Ekainaren 17koa da aldameneko argazkiko Durangaldeko lagun bien saioa; Sweet & Vicious diskotekako etxeko DJa den Gato eta tinbalekin erritmoa jartzen Ugutz aritu ziren

Cristian eta DJ Gato, abendutik Sweet&Vicious diskotekako arduraduna eta bertako etxeko DJ-a dira, durangarra eta abadiñarra, hurrenez hurren, eta Non diskotekako laguna Ugutz. Joan zen

> Techno-house doinuak eta tinbalaren erritmoak uztartu zituzten saioan

barikuko saioan, lehenengoz uztartu zituzten Sweet & Vicious diskotekako saio batean DJ-aren techno-house doinuak eta tinbalen erritmoak Gato eta Ugutzek. "Nahasketa hori jendeari asko gustatu zitzaion, eta oso pozik gaude gu", esan digu hirukoteak. Sei ordutako saioa izan zen guztira; eta lau abestitan elkartu zituzten Ugutzen tinbalak eta DJ Gatoren doinuak. Aurretik, Jon Mayok jardun zuen *Warm-up* lanetan.

Perkusioa eta elektronika zuzenean uztartzeko beste emanaldi baterako ideia daukatela azaldu digute hiru gazteek: Non diskotekan gura dute joan zen barikukoa lako saio bat antolatu, "Sweet & Viciousi tributo bat egitea da ideia", kontatu digute, "eta Durangaldea eta inguruko hamabost DJ gonbidatzea jaira".

Astero, barikuetan, musika elektronikoaren zuzeneko saioak



Kepa Aginako

antolatzen dituzte Sweet&Viciousen. Durangaldean eta inguruetan hainbat DJ daudela azaldu digute arduradunek; "euren musika eskaintzeko leku finkorik ez daukatenei eskaintzen diegu aritzeko aukera", diote. Barikuetako saioak entzutera eta dantzatzera gertutatzen den zalego zabala ere badagoela Durangaldean diote.

> "Euren erakutsi ahal izateko lekua eskaintzen diegu bertako DJ-ei"

Bere techno-house doinuak sortzeko oinarri legez, doinu dantzagarriak dituela berak gustuko kontatu digu DJ Gato abadiñarrak: "Soinu grabea da inportantea musika honetan, eta erritmoa oso eramangarria izatea". Ahots, erritmo eta isilune horiek oinarri hartuta eta tinbalak gehituta jardun zuten barikuan. ■ I.E.

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ

anboto astekariak Eusko Label otzara zozketatuko dau bi hilerik behin

ZOZKETA

Zenbat eta errezeta gehiago bialdu orduan eta aukera handiagoa

* Bialdutako errezeta guztiek izango dute opari bat

Bidali errezetak honako helbideetara:

- astekaria@anboto.org helbide elektronikora
- Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 • 48215 Iurreta

anboto komunikabideak

KIROLAK >

“Izugarria izan da Tabirako lako klubari ekarpena egin ahal izatea”

Beharleku handia izan dela onartu arren, oso pozik dago Perez egindako lanagaz.

Hilario Perez

2007-2011
Tabirakoko Lehendakaria

2003-2007
Lehendakariordea

2002-2003
Batzordekidea

Azken lau urtean Tabirakoko lehendakaria izan da Hilario Perez. Egindako lanagaz pozik, Itsaso Gartziari emango dio lekukoa. Gartzia izango da klub historikoak izango duen lehenengo emakume lehendakaria

“Aurrerantzean, harmailetan egongo naiz, Tabirako animatzen”

“Denboraldi erabat arrakastatsua izan da aurtengoa, nire ustez”

Zer balorazio egiten duzu aurtengo denboraldiaz?

Urtea erabat arrakastatsua izan dela uste dut. EBA mailan egon gara lehenengoz, eta esperientzia interesgarria izan da. Horrez gainera, harrobiko bi talde Espainiako Txapelketetan sartu ditugu. Erregional Mailako gizonezkoek ere igoera lortu dute; denboraldi hasierako helburuetariko bat zen. Nesken taldea Erregionalean mantentzea ere lortu dugu.

Modu orokorrago batean, nola baloratzen dituzu lehendakari izan zaren lau urteak?

Herritarrekin eta herriarentzat lan egiten duen talde bat izatea zen gure helburua legegintzaldi hasieran. Bide horretan, hitzarmena sinatu dugu Durangoko ikastetxe guztiekin. Tabirakoren etorkizunaren funtsa da hori; Tabirakoren harrobia ikastetxeek osatzen dute, beraz, ezinbestekoa da taldearentzat hitzarmen hori garatzea.

Bestalde, taldea asko hazi da urteotan; aurten 53 talde osatu ditugu. Gaur egun, 209 entrenatzaile eta delegatu eta 902 jokalari daude Tabirakon. Babesleei dagokienez ere, asko hazi da taldea; asko eskertzen dugu euren fideltasuna. Bizi dugun krisi egoeran egin duten esfortzua txalotzekoa da. Kirol arloan hazteaz gainera, erakunde legez jauzia eman du Tabirakok. Helburua bete egin dugu, beraz.

Tabirakok filosofia ezaguna du...

Bai, klubaren oinarria bolondres lana da; taldea osatzen dugun guztiok boluntarioak gara, ez dugu soldatarik. Horrek ez du esan gura ONG bat denik; kirol talde bat gara. Harrobiagaz bakarrik behar egiten duen kluba da Tabirako; hitzarmena sinatu duten ikastetxeek ere osatzen dute kluba. Filosofia horri jarraituz ahalik eta emaitza onenak lortzen saiatzen gara; aurten, besteak beste, EBA mailan aritzea lortu dugu. Gure filosofia herrira mugatzen da; ez gara selekzio bat. Hori hobetzeko, bi lan ildo ireki ditugu aurten: lan etekinarena eta parte-hartzearena. Umeak batean edo bestean egokitzen ditugu.

Tabirakoren 50. urteurrena zure legegintzaldipean bete zen...

Urteurren hori zuzendaritzako kideekin bizitzea ahaztezina izan zen; ekitaldiz betea izan zen urte hori, eta lan asko egin genuen; Espainiako Txapelketak antolatu genituen, Sanfaustoetako pregoilariak izan ginen... Bereziki gogoan izan gura ditut gu baino lehenago Tabirakon behar egin zuten guztiak. Euren lanari esker heldu gara gauden lekura.

Zer ekarpen egin diozu Tabirakori?

Ilusioa, batez ere. Zuzendaritza taldeak Tabirakoren esku jarri du bere ezagutza. Lan handia egin dut; oporrik bako bederatzi urte izan dira. Izugarria izan da horrelako erakunde bati nire ekarpena egin ahal izatea. Gauza batzuk hobetu daitezkeen arren, oso pozik nago eginiko lanagaz.

“Urteotan talde zein erakunde legez hazi da Tabirako; 53 talde ditu orain”

Zer jaso du Hilario Perezek Tabirakorengandik?

Pertsona taldeekin lan egiten ikasi dut, batez ere. Taldean lan eginez, besteen iritziak entzun eta onartzen ikasten da, eta persona moduan, aberastu egin nau horrek.

Zuzendaritza berriarentzako mezurik?

Gaitasun handiko jendea da, eta oso ondo egingo dutela uste dut. Bi hilabete daramate lanean zuzendaritza zaharragaz batera, martxa hartzen hasteko. Itsaso Gartziaren kasua nabarmentzea gustatuko litzaidake; historiako emakumezko lehenbiziko lehendakaria izango da.

Eta aurrera begira, zer?

Tabirakoren bazkide bat gehiago baino ez naiz izango; harmailetan egongo naiz orain, gainerako zaleekin batera taldea animatzen. ■ A. Maldonado

Sanjoanetako II. Txapelketa jokatuko dute Dimagolfen

Zapatuan II. Sanjoan Txapelketa jokatuko da Dimagolf zelaian. Jokatzeko modalitatea, handicap bidezko Stableford izango da. Txapelketa ostean, txuleta-jana egingo dute parte-hartzaileek. Izena emateko, *info@dimagolf.com* helbide elektronikora idatzi daiteke; bestela, 94 404 61 47 telefonora deitu behar da. Izenak berak dioen moduan, txapelketa hau jokatuko den bigarren aldia izango da.

Bestalde, joan den domekan, ekainaren 19an, Ipar Zirkuituko azken proba jokatu zen zelai honetan. Zirkuitua bost probek osatu dute. ■ A.M.

Kirol udalekuak hasiko dira astelehenean

Mugarra triatloi eskolak eta Mugarra triatloi taldeak antolaturiko kirol udalekuak hasiko dira astelehenean, ekainaren 27an; uztailaren 22ra arte iraungo dute udalekuek. Udaleku hauek 8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoei zuzendurik daude. Lau aste horietarako hainbat ekimen antolatu dituzte; besteak beste, bizikleta ibilbideak, errugbi topaketak eta triatloi lehiaketa egingo dira. Horiez gainera, irteerak ere egingo dituzte udalekuek iraungo duten denboran; hondartzara, mendira zein igerilekura irtengo dira gaztetxoak. Kirola eta aisialdia uztartzea bilatzen du Mugarra taldeak udaleku hauekin. ■ A.M.

JAEDek frontenis txapelketa antolatu du

JAED Gizarte Laguntzak frontenis txapelketa bat antolatu du. Hain zuzen ere, txapelketa ekainaren 25ean izango da Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan; 09:00etan hasiko dituzte lehenengo norgehiagokak.

Banatuko dituzten sariak ere jakinarazi dituzte. Larrinagatxu jatetxean eta Durangoko Gran Hotelean afari bana banatuko dituzte JAEDeko ordezkariek azaldu dutenez. Horrez gainera, Cafés Baquéren kafe produktuen hainbat sorta ere emango dituzte parte-hartzaileak saritzeko. ■ J.D.

Tontorrera nor arinago igoko lehia bihar, Urkiolan

85 auto gidarik parte hartuko dute Urkiolako Igoeran; Durangalde Racing elkarteko 13 pilotu lehiatuko dira. 15:00etan hasiko da

Iazko arrakasta ikusita, egitura bera mantenduko dute antolatzaileek.

Urkiolako 15. Auto Igoera jokatuko dute zapatuan. Igoera berreskuratu zenetik, jarraian egiten den laugarren biderra izango da.

Guztira, 85 pilotuk parte hartuko dute igoeran; tartean, hiru emakumek. Durangalde Racing elkarteko zuzendaria den Aketza Santacolomaren berbetan, barqueten atalean Iraola, Pañella eta Quesada lehiatuko dira. Turismoetan, ostera, A. Ramirez, A. Arakistain, "Lebeiti" eta I. Olabegogeaskoetxea ditu faboritotzat Santacolomak. Arratsaldeko 15:00etan hasiko dira probak. Guztira, hiru biderrez osatuko dute igoera; lehenengoa, entreneamendu saioa izango da, gainerako biak , ostera, ofizialak. Lehia hasi aurretik, autoen egiaztapenak egin beharko dituzte pilotuek; Landako gunean izango da hori, 9:30-12:30 bitartean.

> 15:00etan hasiko dira probak, 13:00etan errepidea itxi eta gero

Segurtasunagaz arduraturik

Santacolomak azaldutakoaren arabera, "istripuak ekiditeko" antolatzaileek "bereziki" zainduko dute segurtasuna. Errepidea 13:00etan itxiko dute. ■ A.M.

Adituarentxokoa

Ruben Perez
•Txirrindularia

Frantziako Tourra

Munduko kirol probarik garrantzitsuenetakoa jokatzetik aste gutxira gaude. Zorionez, berriro joateko aukera izango dut; bertara joango naizen bosgarren biderra izango da aurtengoa. Aurtengo Frantziako Tourrean izango dudan helburua aurreko aldietako antzekoa izango da. Samuel Sánchez izango da gure liderra; nire helburua, ostera, hasierako ihesaldietan infiltratu eta garaipenen bat lortzea izango da.

Euskaltel-Euskadi taldean ilusio handiz gaude. Etapa garaipenen bat lortzeko aukera dugula uste dugu; horrez gainera, Samuelek podiumeko maileta-ko batean amaitzea bilatuko dugu. Txirrindulari borrokalariz beteriko taldea daramagu Tourrera, eta euskal zaleei merezi duten ikuskizuna eskaintzen ahaleginguko gara. Pirinioak betetzen dituen uholde laranjak babestu egingo gaitu, beste urte batez, euren indar eta animoekin.

Aste honetan Tourreko bigarren etapako taldeka-ko erlojupekorako entrenatzen aritu gara; ez da ondoen moldatzen garen proba, hori dela-eta, hobetzeko asmoagaz arlo hori lantzen aritu gara azken aldian. Bestela, Frantziako Tourrera Euskaltel-Euskadik talde sendoa eroango duela uste dut. Eskalatzaile onak ditugu; kalitate handiko ordekalariak ere badaramatzagu. Horrez gainera, momentu onean dagoen eta sailkapeneko postu ona lortzeko aukerak dituen Samuel daukagu. Esandako moduan, talde sendoa eta osoa osatzen dugu; Frantziako Tourra errealitate bilakatzen saiatuko garen ametsa da.

Erredakzioan itzulia

Euskalteleko bederatzikoa Tourra prestatzen dabil

Arabar Errioxan egin dituzte lehia aurreko kontzentrazioa eta entrenamenduak

Uztailean jokatuko duten Frantziako Tourra prestatzen dabil Euskaltel-Euskadi taldea. Bira hasi aurreko azken entrenamendurako kontzentrazioa Launa Upategian egin dute. Frantziako probako bigarren etapa taldekako erlojupekoa izango da, eta bertan ahalik eta maila onena eskaintzeko asmoz entrenamendua burutu zuten eguaztenean. Indarberritzeko, entrenamendu saioaren ondoren Launa upategian bazkaria egin zuten taldekideek.

Samuel Sánchez izango da Euskaltel-Euskadi taldeak itzulirako aurkeztu duen liderra. Anbotoko kolaboratzaile den Ruben Perezek ere parte hartuko du bira ospetsuan. ■ A.M.

> Sánchez izango da Euskaltel-Euskadiko liderra Tourrean

Txirrindulariak, Launa upategiko kontzentrazioan.

Eneritz Iturriaga Euskadiko txapeldun, bosgarrenez

Abadiñarrak Euskadiko Errepideko Txapelketako proba irabazi du. Joan zen domekan jokatu zuten proba, Zizurkilen (Gipuzkoa). Bizkaia-Panda-Durango taldeko Cristina Alcalde eta Ludivine Lozek osatu zuten podiuma; 19 segunduko aldea atera zion Iturriagak Alcalderi.

Atzo hasita, asteburuan zehar Espainiako Txapelketak jokatuko dituzte Castellonen. Bere webgunean azaldutakoaren arabera, abadiñarra gogotsu eta irabazteko asmoz doa Castellonera: "Inoiz baino gogo handiagoagaz noa". Zizurkilgo garaipenaren garrantzia azpimarratu du, gainera; "Castellonen aurkituko ditudan lehiakide gehienak Zizurkilen egon dira, eta irabazi egin diet". ■ A.M.

Durangaldekoen emaitza onak Lekeitioko triatloian

Ekainaren 18an, Lekeitioko triatloiaren baitan, Euskadiko Txapelketa jokatu zen; emakumezko zein gizonezkoen probetan australiarrak nagusitu ziren. Durangaldeko kirolariek emaitza onak lortu zituzten,

> Bizkarrak 3. amaitu zuen; Loizatek irabazi egin zuen kadeteetan

hala ere. Gizonezkoen mailan, Gorka Bizkarrak (Abadiñoko Laubideta) bederatzigarren zeharkatu zuen helmuga, eta Euskadiko Txapelketan hirugarren postua lortu zuen. Emakumezkoetan, aldiz, Jone Aizpurua (Mugarra) izan zen eskualdeko lehenengo ordezkaria. Talde bereko Irene Loizatek 21. postuan amaitu zuen lasterketa, eta, horrenbestez, kadete mailako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen. ■ A.M.

AMALURRA

URKIOLA

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Bizikleta elektrikoak erosteko diru-laguntzak emango ditu EEEk

Diru-laguntzaren % 25aren baitan, gehienez, 500 euro emango dituzte bizikleta elektriko bakoitzeko

Bioerregaien erabilera sustatzeko, 2.200 euroko laguntza emango dute automobileko, gehienez

Energiaren Euskal Erakundeak % 25eko finantzaketa eskainiko du bizikleta hauek lortzeko, bigarren urtez jarraian

Bigarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) bitartez, diruz lagunduko ditu bizikleta elektrikoen eta bioerregaiak erabiltzeko prestatuta dauden automobilen erosketak. Horretarako, 975.000 euroko aurrekontua duen programa jarri du martxan. Diru-laguntza eskatzeko, EEEren webgunean azaltzen diren jarraibideak hartu beharko dira kontuan.

Garraio alorrean energia-eraginkortasuna hobetzea eta bertan erabiltzen diren energia-iturriak ugaritzea edo dibertsifikatzea dute helburu. Azken honen kasuan, garraioan petrolioaren alternatibak diren bestelako energia-iturrien erabilera bultzatzea gura dute.

Bigarren urtez jarraian, pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak, bizikleta elektrikoak, erosteko diru-laguntza emango du EEEk. Bizikleta konbentzionalen aldean, mota honetakoen prezioa garestia denez gero, haien guztizko kostuaren % 25, BEZa barne, diruz lagunduko dute; gehienez ere 500 euro emango dute bizikleta edo pertsona bakoitzeko. Ekimen hori sustatzeko, 150.000 euro emango dituzte, guztira, diru-laguntzetan.

Diferentzi bakarra

Bizikleta normalen eta elektrikoen arteko desberdintasun bakarra motor elektrikoa edo bateria elektrikoa edukitzean da, pedalei eragiten laguntzeko funtzioagaz. Bizikleta mota hauetan ibiltzeko, ezinbestekoa da pedalei eragitea; izan ere, pedalkadak emateari utziz gero motor elektrikoaren laguntza gelditu edo eten egiten da; baita 25 kilometro orduko abiadura gainditzen denean ere.

Automobilak

Bestalde, jatorri fosila duten erregaien kontsumoa txikitzeko asmoz, bioerregaien (biodiesela eta bioetanola) erabilera sustatuko dute. EEEk dituen programen artean, horrelako bioerregaien nahasketa handiak erabiltzeko prestatuta dauden automobilak erosteko diru-laguntza programa zehatza du.

Hauek dira automobil motak: gasolina-motorra daukaten automobilak eta % 85eraino bioetanolaz osatutako nahasketa kontsumitzeko prestatuta daudenak edo diesel motorra daukatenak eta, gutxienez, biodieselaren edukia % 30ean osatutako nahasketak erabiltzeko egokituta daudenak.

Azaldu dutenez, automobileko emango duten gehienezko diru-laguntza 2.200 eurokoa izango da, eta ezin izango da gainditu automobilaren prezioaren % 15. ■ M.O.

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntsaratzen etxea salgai. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Ia berria. Oso polita. Tel.: 615 007 216

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. 647 777 392.

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular. Altzariz betea, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekua. Tel.: 655 704 684

Durango. 62 m2, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa. Berriztua eta jantzita. Oso eguzkitsua. Tel: 699 409 959

Durango. Sasikoa kalean pisua salgai. 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukaldea. 2 balkoi (bat itxia). Berogailua gas naturalarekin. Ganbara eta garajea. Prezio ezin hobea. Tel: 679 382 369

Durango. 94 m2-ko etxea salgai, herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, eguzkitsua. Bista ederrekoa. 336.000 euro . Tel.: 615 760 801.

Durango. Sasikoa kalean. 70 m2, 3 logela. Balkoia. Igogailuarekin. Tel.: 629 414 363

Durango. Atiko zoragarria Alde zaharrean. Erabat berriztaturik. Jantzita. Gas instalazioa egin berri. Oso argitsua. Tel.: 659 425 890

Durango. 3 urte. Bi logela, bi bainugela, saloia, sukaldea eta 90m2-ko terraza. 28m2-ko garajea. Tel.: 637 416 438

Elgoibar. Obra egin beharra dauka. Posibilitate haundiak. Tel.: 606 93 33 02.

Elorrio. Pisu handia. Sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun eta garaje itxia. Prezio ona. 685 734 825.

Elorrio. 65 m2-ko etxebizitza berria salgai Buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailua. Etxe polita eta eguzkitsua. Prezio ona. Tel.: 94 682 12 34

Mallabia. Baserria eta 20.000 m2-ko lur zatia salgai. Kokapen ona. 340.000 euro. Tel.: 655 702 647 (20:00-22:00 artean deitu)

Otxandio. Kale baserria. Bi solairu eta kamara. Tel.: 656 763 652

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 24.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Negoziagarria. 625 705 997

Zornotza. Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara, berogailua. 345 m2-ko lur-saila. Tel.: 695 70 18 58

EROSI

Durango. Baserria erosiko nuke Durangaldean, lursail apur batekin. Ez du inporta zein egoeran dagoen (erreformatu behar bada, etab). Prezioa 250.000 euro (negoziagarri). Tel.: 618 936 214.

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisu bat alokagai muntsaratzen. Garaje partzela eta ganbara aukeran. Tel.: 660 646 292 / 680 581 507

Abadiño. Muntsarantzen pisua alokagai. Tel.: 680 581 507 edo 660 646 292

Berriz. Pisua alokagai berrizen (abalarekin). 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Herri erdian kokatua. Tel.: 688 685 429

Elorrio. Toki onean, elorrio erdialdean 100 m2-ko pisua alokagai. 3 gela, ezkaratza, saloia, 2 komun, igogailua. Sartzeko prest. Deitu: 605-72 12 73 (arratsaldez).

ERRENTAN HARTU

Durango. Bikote euskalduna alokairuko pisuaren bila, durangon, abadiñon edo iurretan. Biok lanean. Tel.: 626 174 241

